

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004.06.02

IV. urtea • 162. zenbakia • DOAN BANATZEKO



HENRIKE KNÖRR/ EUSKALTZAINA
“Erakundeen herria ala ‘txiringitoen’ herria nahi dugun erabaki behar dugu” /11

Goienka2a
 Tourra: debagoiendar ugari aurten ere Pirinioetan

ASTEKO GAIA: BERGARA, BALIZKO KOKALEKUA

Errauskailua gurean ez ei dute ipiniko

Gipuzkoako errauskailu handia non egin hemendik bi astera erabakiko dute hainbat erakundek, tartean, gure mankomunitateak. Hala erabaki zuten atzo, eguena, izan zuten batzarrean. Bederatzi hautagaietako bat Bergara da, Aldeta-San Kristobal aldean. Hala ere, errauskailua hartzeko aukera gehienak Donostiak eta bere

inguruneak ditu, eskualde hori da-eta zabor gehien produzitzen duena, eta kokalekuaren baldintzak ere hobekak direlako.

Distantzia horrek eragin du ibarrean gutxi eztabaidatu izana errauskailuaren auzia, baina Debagoiengan ere egitasmo horren aldeko zein aurkako ahotsak entzun ditugu. /2-3

Udal gehienetan Eudelen akordioa onartuko dute

Eskualdeko herri batzuetako udalek Eudelek proposatutako akordioa onartu dute, eta beste batzuetan, datozen plenoetan aztertuko dute gaia. Langile gehienak, hala ere, ez daude ados, eta protestekin jarraituko dute. Bergara eta Arrasateko udal batzordeek, esa-

terako, onartu egin dute Eudelek egindako proposamena. Oñatin eta Antzuolan, aste honetako osoko bilkuretan aztertu dute gaia. Bietan, Eudelen akordioa onartzea proposatu dute, eta langilek euren desadostasuna azaldu dute. /4



Hiltegiaren gaineko hitza, udalek

Ibarreko udal bakoitzak osoko bilkuran erabakiko du Zubillagako hiltegiarekin zer egin gura duen, eta uztaillaren 28a baino lehen egin beharko du hori. Halaxe erabaki zuten Mankomunitateak herenegun, eguaztena, hil honetako batzarrean, Gatzagan. Neurri horrek akordioei atek zabaltzen dizkie, baina Mankomunitateak onartzen du horren ondoren ez duela ezer aurreikusi oraindik. Uztaillaren 28ko batzarrean berriro landuko dute gaia.

Aldez aurretik jakina zen hiltegia hizpide izango zutela aste honetan; hori dela-eta, giroa bero-bero zegoen Gatzagan. Hiltegia Bizirik plataformako kide ugari bildu ziren Herriko Plazan, eta berriro eskatu zuten hiltegia ez ixtea.

LORAMENDI
KIROLAK
BEHERAPENAK
INTERSPORT® Arrasate

GRUPO RKUZ

<p>RKUZ ALTZARIAN Araba etorbidea 20 Tel./Faxa: 943 79 23 51 ARETXABALETA</p>	<p>ETXE MOBIL MUEBLAS ALTZARIAN Araba etorbidea 5 Tel./Faxa: 943 79 41 82 ARRASATE</p>
<p>RKUZ SUKALDE INTEGRALA Mitarte 3 Tel./Faxa: 943 77 04 55 ARETXABALETA FAGOR</p>	<p>RKUZ ELEKTRAGAILUAK Andramari auzunea 1 Tel./Faxa: 943 79 10 97 ARETXABALETA expert</p>

TOURREKO KAMISETA ESKURATU NAHI? BILATU BARRUAN!

Bergara, nekez errau

- Hemendik bi astera lekua hautatuko da; Bergara ez, seguruenik
- Errauskailua egitearen alde daude ibarreko erakundeak
- Eztabaidarik ez da egon ibarrean, baina ahots kritikoak badaude gurean

LEIRE KORTABARRIA

Gipuzkoako hondakinen kudeaketa plana bere unerik polemikoenera iritsi da: hain zuzen, hemendik bi astera, Gipuzkoarako errauskailua non egingo duten erabakiko dute Eusko Jaur-laritzak, Foru Aldundiak, Batzar Nagusietako alderdi politiko guztiek eta Gipuzkoako zazpi mankomunitatek osatutako Jarraipen batzordeak. Aurkako ahots ozenak entzuten diren arren, errauskailuarekin aurrera egitea ez da zalantzan jartzen; orain erabakitzeke dagoena da non ipiniko duten, eta hori lehenbailehen egin nahi dute erakundeek; izan ere, Foru Aldundiko Garapen Eramangarri sailak dioenez, "arazoa oso larria da". "San Markosko hondakindegia hemendik 18 hilabetera itxiko dute, eta horrek hartzen du Gipuzkoako hondakinen erdia baino gehiago, eta zabor hori beste hondakindegietara eramane beharko denez, hauek ere uste baino lehenago itxi beharko dira", dio Aldundiak. Horrek esan nahi du Debagoie-



Egitasmoaren Jarraipen batzordeak prentsaurrekoa egin zuen astelehenean. Guretik, Juan Karlos Bengoa izan zen han.

ARGAZKI PRESS

Sentsazio askatasuna proba ezazu



Besaulkiak eta sofak



Plus Sistema™ eksklusiboarekin eta Stressless®-en teknologia aurreratuarekin, besaulkiak eta sofak zure gorputza libre sentiaraziko duten munduko leku bakarrak dira, edozein jarreratan egonda ere. Kolore eta forma gama guztiak aukeran, zure saloiko estilora egokitzen dira, amets egiteko edo zure pentsamenduak aske uzteko gogoko duzun toki bihurtuz.

www.ekornes.es

Diplomat larruzkoa
953 eurotik aurreraWindsor larruzkoa 2 plaza
2.705 eurotik aurrera

nak erabiltzen duen hondakindegia, Sasietak, ere bizitza oso mugatua duela.

Errauskailu handi hori hartzeko bederatzia aukeretako bat Bergara zen, baina ez dirudi aukera handirik duenik. Atzo zen bederatzia aukeretatik hiru galbahetzekoa Jarraipen Batzordea; azkenean, hemendik 15 egunera erabakiko dute behin betiko kokalekua. Aldundiak dioenez, "Donostiak eta inguruneak produzitzen dutenez zabor gehien, errauskailua han egon beharko litzateke".

IBARRARENDAKO EGOKIENA

Badirudi, hortaz, errauskailuak ez duela Debagoienean eraginik izango. Egitasmo osoan Debagoiena ia ez da aipatu, eta horrek ekarri du ibarreko gizartean eztabaida biziegirik piztu ez izana. Horrek ez du esan nahi, ordea, alde eta kontrako ahotsak egon ez direnik.

Debagoieneko Mankomunitatea errauskailuaren alde dago, Gipuzkoako beste guztiak bezalaxe. Mankomunitateak nabarmentzen du errauskailua egitea dela Gipuzkoako hondakinen ara-

Hainbat datu eta aholku

ZENBAT HONDAKIN SORTZEN DA?

Ibarrak 17.500 tona zabor produzitzen ditu urteko. Herrialde garatuetan, pertsona bakoitzak egunero 4 kilo produzitzen ditu.

IBARREKO BIRZIKLATZE TASAK

Iaz, debagoienarrok zaborraren %28,2 birziklatu genuen. Herbeheretan, adibidez, %30 da tasa; Estatuan, %11. Gure helburua da %40ra iristea.

ORDAINDU BEHARREKO TASAK

Errauskailua egiten denean, gipuzkoar familia bakoitzak 60-65 euro inguru ordaindu beharko du urtero hondakin tonako; hau da, 30 euro pertsonako.

2006. URTEA

Diputazioaren helburua da hondakin askoz gutxiago sortzea 2006. urterako; talde kritikoek diote oraingo ez duela neuririk hartu.

HONDAKIN KOPURUA MURRIZTU

Zabor gutxiago produzitzeko gomendatzen da erabili eta botatzekoak ez erostea, ontzi familiarak eta produktu freskoak eta pisura erostea, eta gauzak trukatzeko.

GURE ZABOR-POLTSA

Zabor-poltso hondakinen %44 materia organikoa da; papera eta kartoia, %21; %15, metala, plastikoa eta tetra-brik ontziak; beira, %7; oihalak, %3.

skailuaren kokaleku

zoari eman dakioken erantzun “errealista” bakarra. Izan ere, berrerabilpena eta birziklapen maila oso ona da Debagoienean: zaborraren %23 birziklatzen da. Hala ere, hori ez da nahikoa: “%40a da helburua, baina, hori lortuta ere, beti egongo da ehuneko beste altu bat birziklatu ezin ez dena”, dio Mankomunitateak.

Ekologista eta mediku askok salatu dituzte errauskailuaren kalte larriak, baina Mankomunitateak eta Foru Aldundiak diote ez dagoela inongo arriskurik. “Ingurumen kalteari eta baita diru-kostuari dagokionez ere, hondakindegien egoera askoz txarragoa da”, dio ibarreako erakundeak. Era berean, proposatutako beste teknologiek —eko-parkeak, hondakinaren beste era bateko tratamenduan oinarrituak— “ez dute arazoa konpon-tzen”, euren esanetan, eta gaineratzen dute errauskailuak oso ohikoak direla herri aurrera-tuagoetan: Danimarkan, Japonian, Alemanian...

GUZTIOI DAGOKIGUN ARAZOA

Aldeko jarrera horrekin ez datoz guztiok bat. Aurkako mugimendu indartsuenak Donostialdean eta Txingudiko eskualdean izan dira, eta gurean, ezer gutxi entzun da. Besteak beste, Ezker Batua, Aralar eta herri plataformak aurka agertu dira. Talde ekologistek ere aurkako jarrera azaldu dute.

Horien ustez, garbi azaltzen ez diren arazo asko daude. Ekologistak Martxan taldeko Jabier Abalde arrasatearrak dioenez, “orain esaten dute errauskailu horrek Akeiko errauskailu zaharrak egun bakarrean kutsatzen zuena baino gutxiago kutsatuko duela urtebetean, baina lehen esaten zuten Akeiko errauskailua ezin hobea zela. Zelan ulertzen da hori?” Abalderen esanetan, arazoa guztioi dagokigu: “Errauskailua gizarte honen isla da: modu arinean kontsumitzen eta ekoizten da, eta hondakin-ekin zer egiten dugu? Bada, bide-rik errazena: erretzera bota. Hori da aldatu behar dena. Baina filosofia hori sustatzeko ezertxo ez dute egiten erakundeak”. Aurkako talde guztiek salatzen dute ez dela giza eztabaidarik bultzatu, eta izan diren foroak “aurpegi garbiketarako” zirela.

Iñigo Iñurrategi Bergarako Aralarko kideak dioenez, errauskailuaren aldeko apustua, funtsean, “gaur egungo kudeaketa ereduarekin jarraitzea” da. Era berean, esaten du errauskailuak gaurko gizartearen arazoa eta mentalitatea behin betiko bihurtuko dituela: “Errauskailua egin eta gero, jaten eman behar zaio, eta horrek esan nahi du hondakinak produzitu beharko direla”.

MIKEL JAIO / MANKOMUNITATEKO INGURUMEN ZERBITZUA

“Ezinbestekoa da lanak lehenbailehen egitea”

Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen zerbitzuko arduraduna da Mikel Jai. Berak azaldu digu errauskailuaren egitasmoaren gainean Mankomunitateak duen jarrera.

Zein da Debagoieneko hondakinaren egoera?

Sasietako hondakindegira eramaten dira, Beasainera. Gipuzkoako hondakindegia guztiak laster beteko dira, eta hau aurreikusten da 2009. urtean ixtea. Hortaz, hori da Debagoienak duen epea hondakinon kudeaketari irtenbidea aurkitzeko.

Aste honetan espero zen lehen aukeraketa bat egitea, baina ez da hala izan. Horrek prozesua luzatu dezake?

Espero dezagun ezetz. Foru Aldundiaren jarrera oso tinkoa da gauzak ahalik eta lasterren egitearen alde, eta uztaileko kokapena behin betiko erabakita utzi nahi du. Lekua aukeratu, proiektua idatzi eta lanak egin orduko, bost bat urte pasa daitezke, eta oso garrantzitsua da gauzak lehenbailehen egitea.



Zer gertatuko da Sasietako hondakindegia ixten dutenean?

Ozta-ozta iritsiko gara arazo larriren bat gertatu aurretik. Errauskailua 2009 edo 2010. urterako martxan jartzea espero da. Bestela, ez dago beste ezer aurreikusita. Horregatik da hain

garrantzitsua lanak lehenbailehen hastea.

Ibarrarendako, zein litzateke kokapen egokiena?

Donostia inguruan. Alde batetik, Donostia eta inguruneak sortzen du Gipuzkoako hondakinaren erditik gora, hortaz, bertan kokatzea da zentzuzko-

“Erraustegia da konponbide bakarra, bat-bateko irtenbidea behar duelako arazoak”

na. Baita, komeni da hondakinak ahalik eta gutxien garraiatzea, kostuak eta kutsadura murrizteko. Bergarako kokapena, Alde-tan, desegokienetakoa zen.

Errauskailuaren beraren plana askok kritikatu dute.

Bai, baina ez dago beste aukerarik. Gasifikazioak, konpostajeak... ez diote arazoari erantzun osorik ematen. Gu bat gatzoz zabor gutxiago produzitu behar denarekin, baina hori epe luzerako helburua da. Orain, bat-bateko konponbidea behar da, eta errauskailuarekin ados daude mankomunitate guztiak. Ekologistek esango nieke hondakindegia errauskailua baino askoz kaltegarriagoak direla.

IÑIGO IÑURRATEGI / ZINEGOTZIA BERGANAN; ERRAUSKAILUAREN AURKA

“Errauskailua gaurkoa bezain txarra da”

Gure ibarrean ez da errauskailuaren inguruan larregi berba egin, baina badago gai horren inguruko kezka izan duenik ere. Iñigo Iñurrategi zinegotziarekin hitz egin dugu.

Errauskailuaren irtenbidea ez da egokiena, zure ustez, ezta?

Ez. Horrek sortzen dituen gasak, keak... kaltegarriak dira. Hondakindegia bezain aukera txarra da. Ez da alternatiba.

Zein izango litzateke aukera egokiena debagoiendarrondako eta gipuzkoar guztiondako?

Egin behar dena da beste filosofia bat indartu: hau da, hondakin gutxiago sortu, berrerabili, eta birziklatu. Birziklatzea azkenengo pausua da, horrek energia galera dakarrelako. Eta sortzen diren hondakinak kudeatzeko modu ez hain kaltegarriak daude: adibidez, gasifikazioa.

Debagoieneko hondakinak Sasietara bidaltzen dira. Hondakindegia guztiak 2007an itxi beharko dituzte...



Bai, baina arduradunek, hondakindegia ezarri zizutenean ere, bazekiten muga bat izango zutela. Zergatik ez zuten orduan zerbait aurreikusit? Askok uste dugu badagoela astia beste irtenbide onago batzuk asmatzeko. Epe ertainean, lehen aipatutako jarrera aldaketa izango litzate-

ke irtenbide bat, adibidez. Hondakinaren konponketak ohitura aldaketa eskatzen du.

Gure mankomunitatea ere errauskailuaren alde dago.

Erakundeek osatu duten batzordeak apustu garbia egin du. Inplantazio teknologia errazagoa da, beste teknologia batzuk

“Hondakindegia zabalduta zirenean, bazekiten muga bat izango zutela, eta ez zen ezer aurreikusit”

baino merkeagoa, eta sakonean dagoen kudeaketa sistema oraingo berbera da. Diputazioak ez du zabor gutxiago produzitzea bultzatzen.

Zergatik ez du gai horrek eztabaidarik piztu gurean?

Bergara kokaleku posible bezala aipatu zenean hasi zen jendea deika eta galderak egiten. Lehenengo Akeiko errauskailua zela-eta, gero Sasietako hondakindegia zela-eta, eztabaida ez da inoiz bultzatu gurean. Hondakinak urrutira bidaltzen ditugu, eta badirudi inori ez zitzaio- la ardura. Errauskailua Donostialdean egiten badute, egia da guretako kalte gutxi izango dela, baina distantzia horrek sentzibilizazio galera dakar.



EDU MENDIBIL

Herri batzuetan, Bergaran esaterako, Udal langile gehienak ez daude ados Eudelek eta CCOOekin egin duten akordioarekin.

Eudelen akordioa onartzearen alde daude eskualdeko udal gehienak

Herri batzuetan onartu dute, baina langileek protestekin jarraituko dute

OIHANA ELORZA

Eskualdeko herri batzuetako udalek Eudelek proposatutako akordioa onartu dute, eta beste batzuetan, datozen plenoetan aztertuko dute gaia. Langileak ez daude ados, eta protestekin jarraituko dute.

Bergara eta Arrasateko udal batzordeek, esaterako, onartu egin dute Eudelek egindako proposamena. Oñatin eta Antzuolan, aste honetako osoko bilkuretan aztertu dute gaia. Bietan, Eudelen akordioa onartzea proposatu dute, eta langileek euren desadostasuna azaldu dute. Elgetako Udalak ere onartu du akordioa, baina ez bakarrik Eudelekoa. Langileek garbitzaileen egoera hobetzea eskatzen zuten, eta puntu hori ere onartu du Udaleko osoko bilkurak. Aretxabaletan, berriz, datorren uztailearen 12an egingo duten osoko bilkuran aztertuko dute gaia. Alkate Arritxu Oliden alkateak esan du Eudelen akordioa onartzea proposatuko dutela.

MANKOMUNITATEA

Mankomunitateak eguaztenean egin zuen hileko bilera Gatzagan, eta han ere, lan hitzarmenaren gaia aztertu zuten eskualdeko ordezkariak.

Mankomunitateak erabaki zuen Eudelek eta CCOOekin sinatu duten akordioa onartzea. Ordezkarik gehienak azaldu ziren onartzearen alde. Bozketa egin zuten, eta hauxe da bozketaren emaitza: 13 boto Eudelen proposamenaren alde, eta bi aurka. Onartutako akordio hori aurtengo urterako onartu dute. Izan ere, datorren urtean berriro aztertu eta negoziatu behar da langileen hitzarmena.

Langileek ez dituzte zehaztu aurrerantzean egingo dituzten protestak

Mankomunitatearen bilera egiten ari ziren bitartean, erai-kinaren kanpoaldean langileak egon ziren protesta egiten. Izan ere, langileak ez daude ados Eudelek eta CCOO sindikatuak sinatu duten akordioarekin.

LANGILEAK

Oñati eta Antzuolako langileak, adibidez, akordio horrekin ados ez daudela esan dute. Baita Arrasate eta Bergarakoek ere, eta protestekin jarraituko dutela esan dute. Hala ere, oraindik ez dute bilerarik egin eta ez dute erabaki orain arteko lanuzteekin jarraituko duten edo beste protesta motaren bat egingo duten. Arrasateko langileen komiteko ordezkariak esan duenez, gai-nontzeko herrietako udal langileekin hitz egin nahi dute denen artean zerbait pentsatu eta protestak zehazteko.

Elgetako udal langileek, berriz, bertan behera utzi dituzte protestak, eta Aretxabaletako langileek ere ez dute protesta gehiagorik egingo.

Beste diseinu sari bat jaso du GOIENKARIAk Espainia mailan

Oraingoan, 'Goiena.net' Internet atariak ere jaso du saria

GOIENKARIA

GOIENKARIAk beste diseinu sari bat jaso du. Oraingoan, Society for News Design (SND) elkartearen kapitulu espainolak emandakoa. Espainia eta Portugalgo kazeta diseinurik onenak saritzea du helburu elkarte horrek, eta GOIENKARIAk aipamena jaso du.

Hain justu ere, mantxeta edo ize-na agertzen den tokiaren inguruan, edukiak eta kolorea saritzeko moduagatik saritu dute GOIENKARIA.

Lehiaketara aurkeztu diren kazeten mailaketa tiradaren arabera, GOIENKARIA *El Correo*, *Heraldo de Aragón* eta

horrelako egunkariaren maila berean lehiatu da. Hori horrela izanda, aipamen bat jasotzea oso garrantzitsua da GOIENKARIA bezalako tokian tokiko aldizkari batendako.

Ez da lehen aldia GOIENKARIAk diseinu arloko saria jasotzen duena. Gogoan izango duzue, esaterako, orain dela gutxi Vienan jaso zuela Europako tokian tokiko aldizkari onenaren saria, diseinu arloan. Eta aurreko urtean ere saritu zuten GOIENKARIAko sail bat, *Goienka2a*, lehiaketa berean.

Azpitarratzekoa da, bestalde, *Goiena.net* Debagoieneko Internet ataria ere saritu dutela oraingoan. Kasu honetan, albisteen testua aurkezteko moduagatik.

DEBAGOIENEAN LABUR

Uztailaren 29an zabalduko dute AP-1 ordainpeko autobidearen bigarren zatia


Hil honen bukaeran, uztailearen 29an zabalduko dute Bergara-Hegoa Bergara-Iparra zatia. Zati horrek 4,4 kilometro ditu, eta Eibar-Gasteiz, AP-1, ordainpeko autobidearen bigarren zatia izango da. Hasi-ara batean, San Fermin inguruan inauguratzeko asmoa zuten, baina eraikuntza arloko grebaren eraginez atzeratu egin da. Hala ere, oso atzerapen txikia izan da, greba hasi orduko lanak aurreratu baitzeuden. Horrela, hilaren 29tik aurrera, AP-1 ordainpeko autobidearen 11,6 kilometro egongo dira zabalik.

Lan hitzarmena lantzen ari diren metalaren enpresa gehienek greba egin zuten

Metalaren hitzarmen duinaren aldeko greba deialdiak askotariko erantzuna izan zuen astelehenean. Hitzarmena negoziatzen ari diren lantegien %80-90ek egin dute greba: besteak beste, Oñatiko Nemesio Zubia, Stadler, Garai eta Txintxurretak; Aretxabaletako Laminados eta Azbe Zubiak; Bergarako Torunsak; eta Linazisoro eta Arrasateko Joma eta Mugarri enpresek. Hitzarmena dagoeneko adostuta zutenen erantzuna, aldiz, nahiko eskasa izan zen.

Enpresaren modernizazioaren inguruko hitzaldiak egingo ditu Banestok Arrasaten

Enpresaren modernizazioa izenburupean, jardunaldiak antolatu ditu Banestok. Datorren martitzenean, uztailearen 6an, egingo dituzte, Arrasateko Eskola Politeknikoan. Teknologiaren azken berrikuntzak enpresetan erabiltzeko zein garrantzi eta onura duen gogorarazteko antolatu dituzte jardunaldiak. Guztira, bost hitzaldi eskainiko dituzte, eta MCC, Banesto eta bestelako erakundeetako ordezkariak etorriko dira hitzaldiak ematera.



DAMKAR'T

Estetika eta ile-apaindegi profesionalen eskola
ANCEPEk homologatua

- Kalitatezko prestakuntza osoa
- Etorkizun handiko lanbidea
- Irakasle kualifikatuak
- Ikasturte hasieratik praktikak

Bittor Sarasketa 7, 3. solairua
Tel.: 943 127 152 Faxe: 943 121 518
20.600 EIBAR
Posta-e: damkar.t@terra.es

Matrikula zabalik!
Plaza mugatuak!

20 urtean
prestatutako
profesionalak
dira gure bermea



Kooperatiba eta gidaritzari buruzko jardunaldiak egiten dihardu MUK

Bederatzi herrialdeetako 80 lagun etorri dira kooperatibak ezagutzera

OIHANA ELORZA

Gaur, egubakoitza, goizean, eskualdeko hainbat enpresa bisitatu dituzte kooperatibak bertatik bertara ikusteko. Aurreko bi egunetan, hitzaldiak egin dituzte Oñatiko Unibertsitatean, eta aditu askok hartu dute parte.

Bigarren urtez antolatu ditu MUK kooperatiba eta gidaritzari buruzko jardunaldiak. Aurten, MCCk horrenbeste lanpostu zergatik sortzen duen aztertu dute. Eguaztenez hasi ziren aurtengo jardunaldiak, eta gaur, egubakoitza, eguerdian amaitu dituzte. Lehengo bi egunetan, hitzaldiak izan dituzte Oñatiko Unibertsitateko bigarren solairuko areto nagusian, eta hirugarrenean, bisitak egin dituzte eskualdeko hainbat enpresatara.

Guztira, 80 lagunek hartu dute parte jardunaldi horietan. Amerikako, Europako eta Afrikako bederatzi herrialdeetatik etorri dira; besteak beste, Venezuela, Txile, Italia, Portugal eta Frantziatik. Gaur, taldeak antolatuta dituzte, eta talde bakoitzak enpresa bat bisitatu du, kooperatiba bertatik bertara ezagutzeko. Adibidez, talde batek Fagor Etxetresnak enpresa bisitatu du; beste batek Oñatiko Ulma Packaging; hirugarren bat Eskoriatzara joan da, Fagor Ederlan ikustera; eta azken taldeak Bergaran dagoen Geysler Gastech bisitatu du.

KONTSEILU SOZIALA

MCC kooperatiba nolakoa den eta nola lan egiten duen azaldu dute hizlariak jardunaldi horietan. Gai bat baino gehiago jorratu dituzte, eta punta-puntako hizlariak izan dira; besteak beste, Koldo Saratxaga Irizarko koordinatzailea, Javier Mongelos MCCko Kontseilu Orokorreko presidente ohia, Jose Luis Madinagoitia Ulma taldeko presidentea, Iñazio Irizar MUko irakaslea eta Jesus Catania MCCko Kontseilu Orokorreko presidentea.

Jorratu dituzten gaien artean, kontseilu soziala izan da bat.

Jose Ignacio Martin Euskadiko Kutzako Kontseilu Sozialeko presidentek organoak zein lan egiten duen eta lan horrek zein garrantzi duen azaldu zuen, adibidez, egunean egindako hitzaldian. Kooperatiba batean parte hartzea oso garrantzitsua dela azpimarratu zuen, eta organo horrek parte-hartze hori bultzatzen duela, langileen eta goi karguen arteko zubi-lana eginda.

Gai horretaz gainera, kooperatibaren barruan dauden askotariko organoen zeregina zein

den eta MCCk etorkizunari begira dituen asmoak eta plangintzak zeintzuk diren ere azaldu zituzten, besteak beste.

JARDUNALDI BETAIAK

Kooperatiba eta gidaritzari jardunaldietarako programa bete antolatu du MUK. Eguaztenez eta egunean, goiz eta arratsaldean izan dituzte hitzaldiak. Bisitak, berriz, egubakoitzerako utzi dituzte. Gaur goizean, lau orduko bisitaldiak egin dituzte eskualdeko enpresetara, eta Bergarako jatetxe batean egin duten bazkariarekin amaitu dituzte aurtengo jardunaldiak.

Parte hartzaileek arretaz jarraitu dituzte adituek emandako hitzaldiak, eta jardunaldiak hasi baino lehen emandako txostenak kontsultatu eta irakurri dituzte. Gauzak horrela, orain, nor bere herrialdera joango da ikusi duena azaltzera.

MCCk hainbeste lanpostu zergatik sortzen dituen aztertu dute



Jose Ignacio Martinek kontseilu sozialari buruz hitz egin zuen egunean.



AMAGOIA LASAGABASTER

Saharar Errepublikako eta Mundukideko ordezkariak, martitzenean Otaroran.

Sahararrak egon dira Mundukide elkartekoekin

Hemengo esperientzia kooperatiboa ezagutu nahi dute

AMAGOIA LASAGABASTER

Badira 13 urte Sahara eta Marokok su etena izenpetu zutela, eta egoerak bere horretan jarraitzen du. Urte hauetan, kanpotik jasotako laguntzei esker egin diote aurre bizimoduari sahararrek, baina su etena luze doala ikusirik, beraien ekonomia antolatzea erabaki dute sahararrek, eta Debagoienara etorri dira koope-

ratibismoaren eredia ikastera. Aretxabaletako Otarora etxean elkartu dira Mundukidekoekin.

Saharako kanpamenduetan izan dira orain gutxi Mundukideko kideak, eta orain sahararrek etorri dira gure artera. Horregatik proiektu bat jarri dute abian, formazio plan bat diseinatzea eta inizatiba produktiboak martxan jartzea helburu dituen proiektua.

EROSKI BIDAIAK

Uztaila OPOR IRTEERA

Oporrik gabe geratu ez zaitez, urteko unerik onenak erabat gozatu ditzazun, zure atseden egunak ezin hobeto igaro ditzazun... IRTEERAKO ESKAINTZA HANDIA.

EROSKI BIDAIAK

CANARIAS <small>TENERIFE. PUERTO DE LA CRUZ. Uztaila. 8 egun - 7 gau. Hegazkina Bilbotik. Perla Tenerife Hotela*** (Hotel Murillo). Mantenu erdia.</small>	Prezioa pertsonako 299€ 49.749 Pta <small>(+12 € erregaia igoeragatik)</small>
MALLORCA <small>Uztaila. 8 egun - 7 gau. Hegazkina Bilbotik. Hotelak***. Mantenu erdia.</small>	Prezioa pertsonako 285€ 47.420 Pta <small>(+6 € erregaia igoeragatik)</small>
COSTA del SOL <small>TORREMOLINOS. 07/31 ekin 08/13ra. 8 egun - 7 gau. Royal Park Hotela***. Mantenu erdia. Haurrak (2-12 urte): %50eko deskontua.</small>	Prezioa pertsonako 390€ 64.891 Pta
BENIDORM <small>07/31 etik 08/27ra. 8 egun - 7 gau. Onasol Hotelak**. Mantenu erdia. Haurrak (2-12 urte): %50eko deskontua.</small>	Prezioa pertsonako 245€ 40.765 Pta
TUNEZ <small>07/16tik 07/31 era. 8 egun. Hegazkina Bartzelonatik. Sinbad Hotela***. Mantenu erdia.</small>	Prezioa pertsonako 335€ 55.739 Pta <small>(+14 € erregaia igoeragatik)</small>

Viajes Eroski Bidaia

Grupo Eroski Kalitatea Bermatuta

www.viajeseroski.es

Servimasa

Sukaldeko altxariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

Txuringo Jatetxea

BEREZITASUNA:
txerrikumea eta bieldotsa egur-labean

Eguneko menua
Asteburuetan menu bereziak
Karta
Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak

Osintxu
Tel.: 943 76 48 63
DOMEKETAN ZABALIK

Ibarreko udal bakoitzak erabakiko du hiltegiarekin zer egin nahi duen

Mankomunitateak nahi du udalbatza bakoitzak uztailean har dezala bere erabakia

LEIRE KORTABARRIA

Hil honetako batzarrean, Mankomunitateak ez zuen erabaki Zubillagako hiltegia ixtea edo ez. Horren ordez, erabaki zen udal bakoitzari proposatzea uztailean, osoko bilkura bidez, zerbitzuaren barne jarraitu nahi duen edo ez.

Hileroko batzarra izan zuen Mankomunitateak eguaztenean, hilak 30, Leintz Gatzagan. Hainbat atzerapenen ondoren, ziurtzat jotzen zen azkenean atzo erabakiko zutela Zubillagako hiltegiaren etorkizuna zein izango zen. Erabakia hauxe izan zen: Mankomunitateak Debagoieneko udal bakoitzaren esku utziko du erabakia. Hau da, udal bakoitzari proposatzen dio uztailearen 28rako banakako erabaki bana har dezatela hiltegiaren inguruan. Izan ere, Mankomunitateak egun horretan egingo du datorren batzarra, eta gai hori landu nahi du bertan. Erabaki hori gehiengoz hartu zuen Mankomunitateak: zazpi aldeko bozka izan ziren, aurkako bi, eta bost abstentzio.

Mankomunitatearen neurri horrek ez du beste aurreikuspenik egiten, baina negoziazioa dela bidea ematen du. Izan ere, udalek erabakitzen dutenaren arabera, "akordioak hartu beharko dira", dio Mankomunitateak. Arazoa da, ordea, ez dagoela honen inguruko aurrekaririk. Honakoa gaineratzen dute Mankomunitateko iturriek: "Udalerrri bakoitzak du eskubidea erabakitzeke zerbitzu hori ez zaiola interesatzen, eta bertatik irteteko. Baina, irteera hori zelan egin, edo gainerakoak zelan antolatatu, horren gainean ez dago araurik. Ikusi egin behar".

Zerbitzua udal guztiek finantzatzen dute, eta hori arazoa izan daiteke, etorkizunean gertatzen denaren arabera. Horren gainean ere ez dago aurreikuspenik; Mankomunitateko iturriek diotenez, "logikoa dirudi zerbitzuarekin jarraitu nahi dutenek gehia-



Hiltegia Bizirik plataformak pasa den astean eman zizkion Mankomunitateari ixtearen aurka bildutako 10.000 bat sinadura.

Mankomunitateak uztailearen 28ko batzarrean landuko du berriro hiltegiaren auzia

go ordaindu behar izatea. Eta egin beharko diren inbertsioei, kostuei... aurre egiteko gai izango diren udalak edo ez, hori ere eztabaidatu beharko da. Horregatik, akordioak egin beharko dira".

Hiltegiarekin aurtengo kontratua azaroan bukatzen da, eta ikusi egin behar ordurako hiltegiaren etorkizuna orain baino argiago dagoen.

Udalek erabakia hartuta, akordioak ezinbestekoak izango dira irtenbidea topatzeko

AURRESATEN ZAILA

Osoko Bilkurek zein jarrera hartuko duten, zaila da aurreatzen. Printzipioz, Eskoriatzako eta Oñatiko udalek proposamen bana aurkeztu zuten atzoko Mankomunitatearen batzarrean. Eskoriatzako Osoko Bilkurak eta Oñatiko Gobernu Batzordeak denbora gehiago eskatzen zuten gaia aztertzeke. Era bere-

Hiltegia Bizirik taldeak neurri berria kritikatzeko du, eta informazio falta salatzen du

an, alderdi politikoei begira, Aralarrek eta Ezker Batuak hiltegia ixtearen aurkako iritzia garbi azaldu dute pasa diren hilabeteotan; eta, nahiz eta errepresentazio politikorik ez izan, herri plataformak ere aurka daude. Era berean, PSE-EE alderdiak mozioa aurkeztuko duela adierazi du, urtebeteko luzapena proposatuaz, eta Eusko Jaurlari-

tzari bideragarritasun txostena egin dezala eskatuaz.

Udal ordezkari batzuen iritziz, herri handien jarrera erabakigarria izango da, izan ere, "Arrasatek eta Bergarak, esaterako, zerbitzua uztea erabakitzen badute, txikiek ezin izango diote aurre egin".

Mankomunitateak, berez, aspaldian jarri zuen zalantzan Zubillagako hiltegiaren eredia. Batetik, galera handiak eragiten dituela esaten du, baina baita, aurrera jarraituz gero, aldaketa handiei aurre egin beharko diela, besteak beste, gaur egungo segurtasun neurriak ez ei dituelako betetzen.

HILTEGIA BIZIRIK TALDEAREN IRITZIA

Aldez aurretik, gauza jakina zen Mankomunitateak hiltegiaren jarduera zuela atzo. Mankomunitateko presidente Ignazio Lakuntzari eta gainerako Gobernu Batzordeko kideei ez zieten ongi etorri gozirik egin Hiltegia Bizirik plataformako kideek, Gatzagako udaletxe aurrean bildu ziren-eta, protesta egiteko.

Hiltegia Bizirik plataformaren iritziz, Mankomunitatearen azken erabakia "ez da zuzena, arazoa udalei pasatzen die-eta, erabakitzeke tresnarik edo datu nahikorik eman gabe". Ibarreko ordezkariaren esanetan, "hiltegiak zerbitzu publiko izaten jarraitu behar du, eta hala eskatzen dugu ez bakarrik baserritarrok, baita kontsumitzaileok ere. Badakigu orain arteko ereduak ezin duela iraun, baina guk proposatu genion Mankomunitateari azterketa sakonago bat egitea eta guri behar ditugun datu guztiak ematea. Gu prest gaude kudeaketan parte hartzeke, baina beti egon behar da erakunde publikoen interbentzioa". Plataformak dio Mankomunitateak erabaki berri hau hartu duela inorekin kontsultatu gabe, eta hainbat udal, alderdi politiko zein plataformaren beraren proposamenak kontuan hartu gabe.

ALDERDIEN JARRERAK

Mankomunitatea, ixtearen alde; alderdi gehienak, kritiko

Mankomunitateak hiltegia ixtearen aldeko iritzia azaldu zuen eztabaida hasieratik. Alderdiei dagokienez, denetarik egon da. EAJ eta EAK dute gehiengo Mankomunitatean, baina alderdi bezala, ez dute modu ofizialean jarrerarik aditzera eman. Aralar, Ezker Batua eta legez kanporatutako ezker abertzaleko herri plataformak aurka egon dira. PSE-EEk ibarreko hiltegiaren jardura urtebetez luzatzea eskatu zuen.

EUSKO JAURLARITZA

EAEn hiltegi gutxi, pribatuak eta lehiakorak egin nahi ditu

Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako eskualde hiltegiak ixtea gomendatu zuen, 2002an txosten bat egin ondoren. Hain zuzen ere, bere argumetuak ziren EAEn hiltegi handi bakarra egin behar zela, edo, gutxienez, gaur egun baino askoz gutxiago. Edozelan ere, alderdi politiko gehienak kritiko azaldu dira egunotan Eusko Legebiltzarrean eztabaidatutako okelaren sektorearen etorkizunaren gaineko egitasmoarekin.

MANKOMUNITATEAK DIOENA

Erabiltzaileen %30 bakarrik ei dira debagoiendarrak

Hiltegia ixtearen aldeko arrazoien artean, honakoak nabarmentzen ditu Mankomunitateak: batetik, defizit handia duela; bestetik, erabiltzaileen %30 bakarrik direla Debagoieneko baserritar eta abeltzainak, eta gainerakoak Bizkaitik, Arabatik eta Nafarroatik datozela, eta debagoiendarrak ez dutela zertan hiltegi zerbitzua ibarretik kanpoko erabiltzaileei. Azkenik, zaharkitua dagoela ere arrazoitu izan da.

BASERRITARREN JARRERA

Hiltegiak, baserritarrendako ezinbesteko zerbitzua

Ibarreko eta Euskal Herri osoko baserritar, abeltzain eta harakinek beti eskatu izan dute Oñatiko hiltegiak zabalik jarrai dezan, eta Hiltegia Bizirik plataformak osatu zuten. Plataforma horrek azpimarratzen du eskualdeetako hiltegiak zerbitzu publiko direla eta lehen sektoreak bizirik jarrai dezan ezinbestekoak direla. Herritar askoren babesa jaso dute: horren froga, hilabetean jaso dituzten 9.868 sinadurak.

Uztailearen 5a: 008 zozketa

Harpidedunen
txokoa


Sariak, astero!

Astlehenean, uztaileak 5, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Astleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Uztailearen 5eko sariak

- Umeentzako liburu sorta **EREIN** argitaletxearen eskutik.
- Donostiako **AQUARIUM**era joateko sei gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi sarrera).
- **YELMO CINEPLEX** (Gorbeia merkataritza-gunean) zinemetara joateko lau gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi sarrera).



UZTAILEAN, ADI!

Karibera bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu.
Astebete Dominikar Errepublikan, bost izarreko hotelean, guztia barne!

BALDINTZAK

- Astleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astleheneetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

Urte amaierara arteko harpidetza: **20 €**

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astlehenean, aste bukaera osoa

007
zozketa
saridunak

Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!



Jose Angel
Luarizaristi
Arrasate

SARIA:
Bergarako
ZUMELAGA
jatetxean
bi lagunendako afaria

AQUARIUMerako
sarrerak:

- Rosa Mondragon (Arrasate)
- Luis Mari Arantzeta (Arrasate)
- Miren Amozarrain (Bergara)
- Ramon Aranzabal (Bergara)
- Jose Ramon Arizaleta (Arrasate)
- Arantza Muruamendaraz (Bergara)

YELMO
Cineplexerako

sarrerak:

- Arantza Arenaza (Aretxabaleta)
- Jon Bilbao (Bergara)
- Rosario Guridi (Arrasate)
- Nekane Zelaia (Oñati)

ANTZUOLA

Herriko hiru enpresa elkartu dira euskara bultzatzeko

Martitzenean, hilak 29, egin zuten lehendabiziko batzarra Goizper, Elay eta Matz-Errekako ordezkariak. Hiru enpresek dituzte euskara planak, eta orain arte, enpresa bakoitza bere kasa ibili da lanean. Orain hasi berri dituzten harremanekin, euren helburua da batuk bestearen berri izatea eta euren esperientziak elkar trukatzeko.

Hain zuzen, martitzeneko batzarra izan zen lehen hartu-eman, eta euren asmoa da elkarlanean jarraitzea, enpresetako euskararen erabilera normalizatzeko bidean. /A.I.

ARAMAIO


Ekainari dagokion ohiko osoko batzarra egin dute oraingo astean

Aramaioarrak jaiei begira dauden arren, martitzenean udalbatzarrek batzarra egin zuten. Landutako puntuen artean pare bat nabarmenezkotan, udal zerbitzuen esleipena eta bi mozio aipatuko ditugu. Udal zerbitzuen kasuan (herriko garbiketak, ur kontagailuen irakurketa, lorategiak...) ez zuten esleipena erabaki. Mozioei dagokienez, berriz, apartheidia salatzeko duen Hamalaren mozioa ez zuten onartu. Bai, ordea, EAJrena: demokraziaren, askatasunaren eta aniztasunaren aldeko adierazpena. /U.M.

ELGETA

Lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Udalak eta Foru Aldundiak

Udalak lankidetzaren hitzarmena sinatu du Diputazioako Gizarte Politikarako Departamentuarekin. Helburu nagusia da zentro balioanizdunaren bidez adineko ezinduei laguntzea. Hilaren 16an inauguratu dute Elgetako zentroa. Bertan, zazpi plaza egongo dira eta babespeko etxebizitzan, berriz, hiru. Zentro balioanizduna egiteak 143.637 euroko kostua du. Hain zuzen ere, Gizarte Politikarako Departamentuak 30.000 euroko ekarpena egingo du urtero eguneko zentrorako. /I.A.



AINTZANE IRIZAR

OÑATI

Ezker Abertzalea taldeak egingo ditu Herri Eguneko taloak

Ekainaren 19an amaitu zen Herri Eguneko taberna hartzeko izena emateko epea. Aurten talde bakarra aurkeztu da, Oñatiko Ezker Abertzalea, eta hark izango du taloak egin eta zerbitzatzeko ardura. Hirugarren urtez egingo du lan hori talde berak. Etxaluze elkarteak 25 urtean egin du lan hori, baina errelebu eskatu zuen. Ez zen inor aurkeztu, eta Udalak kanpoko talogileak ekartzea erabaki zuen. Hurrengo urteetan ere herriko taldeak aurkezteko aukera eman du Udalak, eta urte batean zozketa ere egin zen aurkeztu ziren taldeen artean. Aurten, ordea, talde bakarra aurkeztu da epe barruan, eta hark hartuko du Herri Eguneko herri tabernaz arduratzeko lana. Datorren urriaren 2an egingo da aurtengo Herri Eguna. /OIHANA ELORZA

BERGARA

EAJ-EA koalizioaren babesarekin onartu dira udal aurrekontuak

Bergarako Udalak 19.785.166 euroko aurrekontua izango du aurten. Era berean, Mizpirualde egoitza (2.448.692 euro), Udal Euskaltegia (379.061 euro) eta Bergarako Bihargintza SA (1.798.480 euro) erakundearen aurrekontuak ere onartu zituen udalbatzak astelehenean. Udalbatzak EAJ-EA koalizioaren aldeko botoekin onartu zuen aurrekontua.

2003ko aurrekontuarekiko, %11ko igoera izan du aurtengo aurrekontuak. Gastuen kasuan, gastu arruntek (pertsonal gastuak, erosketak, interesak eta transferentzi arruntak) hartzen dute aurrekontuko zatirik handiena: 12.882.773 euro.

ARALARREN ABSTENTZIOA

Inbertsioek hazkunde nabaria izan dute. Iaz 2.351.069 euro bideratu zituzten inbertsioetarako, eta aurten, berriz, 3.123.807 euro zuzenduko dira. Bihargintzaren bitartez,

Agorrosingo kirolgune berrirako 1.777.480 euro bideratuko ditu Udalak.

Bestalde, Udalaren zorpetze maila 15,26 puntu da momentu honetan.

Aurrekontuaren bozketan, Udal gobernua dagoen Aralar alderdia absenteitu egin zen: plan ekonomiko-finantzarioa eta inbertsio proiektu nagusienetarako jarraipen plan bat ezartzea faltan sumatzen zitzutela adierazi zuten Aralarrekoek. Bozketan, PSE-EEko zinegotziak ezeko botoa eman zuen eta PP eta Ezker Batuko zinegotziak ez ziren udalbatzan izan. /EDU MENDIBIL

Zertzelada

Inbertsioen artean, Agorrosingo kirolgune berrirako 1.777.480 euro bideratuko ditu Udalak, Bihargintza SA elkartearen bitartez

ARRASATE

Arrasateko zenbait lekutan oztopoak daude ezinduendako

Legearren arabera, kaleek eta herriko zerbitzu publikoek egokituta egon behar dute pertsona guztiendako, zailtasunak dituztenentzako ere bai. Baina Arrasaten oraindik ez dute hori lortu. Monterronen, esaterako, ez dago ezer egokituta. Horrek esan nahi du erruberradun aulki batean ezin dela hara sartu, ezta, jakina, hango

zerbitzuak erabili (liburutegia, bideoteka...). Udaltxean ere badira akatsak: sarrerako ateak estuegiak dira eta osoko bilkuren aretora sartzeko maila bat igo behar da. Bestalde, herriko kaleei begiratzen badiegu, oraindik koskak daude egon behar ez duten lekuan. Hala, koak eta gehiago salatu ditu herriko ezindu batek. /U.M.



U.M.

Ezinduek ez ezik, bestelakoek ere zailtasunak dituzte Monterronen.

ARETXABAETA

Etxebizitza politikaren gaineko hitzaldia egingo dute eguenean

Udal etxebizitza politika izango dute berba egiteko dauden eguenean, hilak 8, 19:30ean, udaletxe zaharrean, Aralar alderdiak antolatuta. Aretxabaetako 2-B zonan, hau da, Deba ibaiaren beste aldean, etxebizitzak egiteko hitzarmena Udalak eta promotoreak laster onartuko dutela jakinda, erabaki dute hitzaldia egitea. Laudioiko udal arkitekto Fernando Heviak udaletako etxebizitza politikaren gainean egingo du berba eta Aralar zinegotziak, berriz, Aretxabaetako egoeraren berri emango dute. /M.A.

ESKORIATZA

Datorren urtera arte agurtu dute eskoriatzarrek San Pedro

Amaitu dira San Pedro jaiak. Ez da jende askorik ibili, astean zehar izan baitira jaiak. Hala ere, bertan izan direnek oso ondo ibili direla adierazi dute. Eskoriatzako areto futbol taldeak esan du pregoia, saskibaloitako taldeko neskekin batera. Eta Euskal Jaiak eman zion amaiera jai egitarauri. Atzo ospatu zuten, eta herri bazkaria izan zen eguneko ekimen nagusia. Gaur gauean, bestalde, Gazte Asanbladak antolatuta, Brigada Criminal, Captain Nemo eta Valium Generatium taldeek joko dute herriko gaztetxean. /Z.V.M.

GATZAGA

Eneko Etxebarrieta abenturazaleak hitzaldia egingo du bihar; zapatua

Bihar, zapatua, Gatzagako kultura etxean Eneko Etxebarrieta abenturazaleak hitzaldia egingo du. 45 mila kilometro egin ditu munduan zehar bizikletaren gainean, eta horren berri emango die gatzagarrei 19:00etan.

Bestalde, domekan San Martin ermitan erromeria egingo dute. 12:00etan etxakueak botata hasiko dute ospakizuna, eta mezaren ondoren, luntxa eta doke txapelketa egingo dituzte la adierazi dute antolatuzaileek. Gainera, musika giroa alaituko du. /Z.V.M.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA



LANBIDE HASTAPENA

2004-2005 IKASTURTEA



www.debagoiena.net

Lanbide profilak

Arrasateko Lanbide Hastapeneko zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:

1go kurtsoa

- Behe tentsioko instalazio elektrikoko laguntzailea
- Modulu-altzarien fabrikazio eta instalazioa
- Sukaldeko laguntzailea
- Iturgintzako laguntzailea

2. kurtsoa

- Industri mekanikoko laguntzailea
- Modulu-altzarien fabrikazio eta instalazioa

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

MATRIKULAZIOA

Uztailak 1etik 14ra
9etatik 12:30etara

Non: Arrasateko Lanbide Hastapeneko egoitza.
Nafarroa Etorbidea 19 Pk: 237 20500 Arrasate
Tel. 943792890 Fax. 943793212
e-mail: idazkaritza@lanbidehastapena.com

LANBIDE HASTAPENA

Nafarroa etorbidea, 19

20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA)

Tfnoa. 943792890 - 943793212

kalitateko haragia eska ezazu bere izenez



Soilik Harategi hauetan

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.
Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

- ANTZUOLA**
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14
- ARAMAIO**
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8
- ARRASATE-MONDRAGON**
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7
- JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20
- AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10
- AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12
- KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1
- BERGARA**
ANDRES MUJIKHA HARATEGIA
DOMINGO IRLA, 5
- BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6
- ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12
- ESKORIATZA**
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11
- OÑATI**
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5
- TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2
- GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2
- SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

■ ARGIA EUSKAL DANTZARI TALDEA ■

Pas de Basque

Euskal dantzen ikuskizuna

EUSKAL DANTZEN IKUSKIZUNA

Zuzendaria: JUAN A. URBELTZ

Tokia: Aretxabaletako kirol etxean

Data: 2004ko uztailaren 3an

Ordua: 22:30ean

SARRERAK SALGAI

Kirol etxean
Kultura etxean
Arlutz tabernan
Gurea tabernan

Prezioa: Aurrez 15 euro



Aretxabaletako Udala

Musikaire



Udako Jaialdiak 2004 Elorrion

www.musikaire.com

diseinua:DI-DA

- 02** Ostirala 22:30ean. Musika
MICATONE (Alemania)
SAN JOSE BASELIZAN
uztaila
- 03** Larunbata 22:30ean. Multimedia
LOGELA "Ohe haundi bat" (Euskal Herria)
ELIZPEAN
uztaila
- 04** Igandea 20:00etan. Kale animazioa
PEP CALLAU I ELS PEPSICOLEN
"Marremango" (Katalunia)
FRONTOIAN
uztaila

- 09** Ostirala 22:30ean. Musika
ORQUESTA DE CÁMARA DE
SOLISTAS DE MOSCÚ (Errusia)
SAN AGUSTIN ELIZAN
uztaila
- 10** Larunbata 22:30ean. Antzerkia
TEATRO MERIDIONAL
"CYRANO" (Madril)
ELIZPEAN
uztaila
- 11** Igandea 20:00etan. Kale antzerkia
PIKOR Y ZANGUANGO TEATRO
"Al fondo a la derecha"
(Euskal Herria) FRONTOIAN
uztaila

- 16** Ostirala 22:30ean. Musika
SAVINA YANNATOU &
PRIMAVERA EN SALÓNICO (Grezia)
ELIZPEAN
uztaila
- 17** Larunbata 22:30ean. Musika
LEWIS TRIO (Kuba)
BERRIOTXOA KALEAN
uztaila
- 18** Igandea 20:00etan. Kale animazioa
LA BANDA "La banda" (Euskal Herria)
FRONTOIAN
uztaila

- 23** Ostirala 22:30ean. Musika
VOX VOCIS (Madril)
ELIZAN
uztaila
- 24** Larunbata 22:30ean. Musika
NASS MARRAKECH (Maroko)
ELIZPEAN
uztaila
- 25** Igandea 22:30ean. Dantza
CONJUNTO ESTATAL DEL ARTE
FOLKLÓRICO CHINO "Llama azul"
(Txina) ELIZPEAN
uztaila

- 30** Ostirala 22:30ean. Musika
ORQUESTA AUS DER WELT
"Orquesta de cámara de mujeres"
(Europa-Amerika) TOLA JAUREGIAN
uztaila
- 31** Larunbata 22:30ean. Musika
XABI SAN SEBASTIAN (Euskal Herria)
ELIZPEAN
uztaila



SARRERA DOAN

Uztailaren 6tik 9ra egingo dira Aramaioko III. Uda Ikastaroak. Lau egunean, XVI. mendeko Euskal Herria izango dute berbagai. Jakituria handiko adituak etorriko dira, eta edozeini dautu zuzenduta ikastaro horiek.

OIHANA ELORZA

Euskal Herria XVI. mendean gizarte eta kultura garai erabakigarrian da ikastaroen gaia. Bakarra baina zabala.

Bai, XVI. mendean sartuko gara, baina hainbat arlo ikusiko ditugu. Adibidez, protestantismoa, kontrarreforma eta foru erakundeen eratzea. Baita garai hartan zegoen kontzientzia ere; Espainiako orduko errege-erreginek gurekin negoziatu behar zuten.

Amerikaz ere hitz egingo dugu, eta baita aurten espero ez genuen berri on horretaz ere: Lazarraga.

Lazarragaren eskuizkribua ala autorea bera izango duzue mintzagai?

Hainbat alde jorratuko ditugu. Batek, Joseba Lakarraren hitzaldia *Lazarragarren euskara* izango da. Kontua ez da, erabat, Arabakoa edo Oñatikoa zen; hor badago *continuum* edo jarraipen bat. Behin mapa batean erakutsi nuen bezala, *untxaur* esaten zen mendikatearen alde bietan, eta ez *intxaur*. Joseba Lakarraren erantzukizuna hori izango da: nolako euskara zen Lazarragarena.

Bestetik, Lazarraga bera nor zen, zer ikasi zuen eta non ibili zen ere aztertuko dugu. Alcalan bizi izan zela, adibidez, badakigu. Horren inguruan Pruden Gartzia oñatiarrak hitz egingo du, Euskaltzaindiko liburuzainak: *Lazarraga, Gari bai eta Lizarraga, euskararen hiru bideak pizkunde garaian*. Azkeneko biak goi mailakoak izango dira: aspaldiko familien loturak, ahaidegoak eta leinuak izango ditugu hizpide. Gorka Aginagaldak, berriz, *Juan Perez de Lazarraga, poeta eta kronista* hitzaldia emango du eta haren familiaren genealogia-kronikaren historia eta ezaugarriak azalduko ditu.

Eta testua bera aztertuko duzue?

Horretarako denbora luzea behar da eta hitzaldien ordutegi mugatua ez da denbora nahikoa izango. Hala ere, Joseba Lakarrak eginda dauka lan hori eta ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditu: zer-nolako sintaxia, hitzak eta aditzak erabiltzen dituen, adibidez. Lazarragaren euskararen koka-pena eta beste argibide batzuk emango ditu.

Zenbat aditu etorriko dira?


Lau eguneko ikastaroa izango da, datoren martitzenetik egubakoitzera, eta guztira 15 aditu-hizlari etorriko gara.

Saiatu gara egun bakoitzeko gaiak dakiten pertsona adituak ekartzen. Dena dela, euskal kultura eta gizartean interesa duen edonorendako dira ikastaro horiek, edonor joan daiteke. Hitzaldia bukatzean, gainera, mahai inguru bat egingo da egunero, parte-hartzaileen iritzia, komentarioak eta galderak erantzuteko.

Ikastaroak abian jarri genituenean, horixe zen asmoa eta helburua, edonorendako zabalik egongo diren ikastaroak egitea.

Zergatik aukeratu duzue aurten XVI. mendea?

Hain zuzen ere, konturatu gara gehienak zuzenean pasatzen direla Erdi Arotik Ilustrazio garaira. Badirudi ez diogula kasu handirik egiten garai hari, XVI. mendeari, eta gauza garrantzitsu asko, aldakuntza handiak gertatu ziren.



UBANE MADERA

Henrike Knörr

ARAMAIOKO UDA IKASTAROEN ANTOLATZAILEA

“Erakundeen herria edo ‘txiringitoen’ herria nahi dugun erabaki behar dugu”

EUSKARA ETA AGINTARIEN LANA
“Elkarteak, taldeak eta behatokiak sortzea eta birsortzea ondo dago, baina agintariak hartu beharko lukete behatze eta zaintze lan hori”

ARAMAIOKO UDA IKASTAROAK
“Erdi Arotik Ilustrazio garaira joaten gara zuzen, baina XVI. mendean aldakuntza handiak gertatu ziren, baita Euskal Herrian ere”

Zeintzuk, adibidez?

Kontuan hartu behar dira Pizkunde garaiko haize berriak heldu zirela Euskal Herria. Hegoaldean, protestantismoa sartzeko debeku larriak egon ziren; Iparraldean, erro sakonak bota zituen, batez ere Joane erreginaren erreinuan, Biarnon eta Nafarroa Beherean.

Amerikaren aurkikundeak goitik behera aldatu zuen Euskal Herria. Familia ugarietan gertatu zen norbait Ameriketara joatea. Misiolari, soldadu eta

abentura-zale asko joan ziren hemendik hara.

Bestalde, gure foru erakundeak ez datoz Santimamiñetik. Horiek sortu eta eratu egin ziren. Euskaldunak, lau probintzietan, harro ziren erakunde horietaz, aske sentitzen ziren. Agian, menpekoak izango ziren, baina Espainiako errege-erreginek errespetatu egin behar zituzten erakunde horiek. Berdintasunezko sentsazioa zegoen, espiritua.

Askok uste izan dute erabateko askatasuna genuela, baina baziren gorabehe-

rak. Gai hori oso interesgarria da eta sakon arituko dira honi buruz hitz egitera datozen adituak.

Zerbait pareka edo konpara daiteke gaur egungo gizartearen eta XVI. mendekoaren artean?

Bai eta ez. Gaur ere aldakuntza sakonak ikusten ari gara, baina oso ezberdina da egoera. Historia ez da behin ere errepikatzen.

Protestantismoa sartu zenean eta eliza katolikoak ikusi zuenean protestantismoa ez zela gelditzen, Trentoko Kontzilioa jarri zuen martxan. Gaur egun, ordea, beste egoera batean, beste inguru batean bizi gara.

Zergatik aukeratu duzue Aramaio ikastaroak egiteko?

Aurreko Kulturako foru diputatuaren asmoa izan zen. Guk herri batean egin nahi genituen, ez hiri batean. Horrekin batera, euskaraz hitz egiten den ibarrean eskaini nahi genituen hitzaldi horietako batzuk.

Aramaio herri ederra da. Udalak ere interes bizia erakutsi zuen hasiera-hasieratik eta ez genuen arazorik aurkitzen.

Gai ezberdinak aztertzen dituzue urtero, ezta?

Bai. Lehendabiziko urtean, Europako Hizkuntza Gutxiak izan genituen ardatz eta iazko udan, berriz, Euskal Herria erromatarren garaitik X. mendea arte. Gauza interesgarri asko entzun genituen, eta aurten ere horixe egin nahi dugu.

Hitzaldiaren gaiaren arabera edo egunaren arabera, gorabeherak izan dira parte-hartzaileen artean, baina orokorrean jendea etortzen da. Gainera, hitzaldien osteko parte-hartze aktibo hori eraginkorra eta interesgarria izaten da.

Hitzaldi horiek paperera pasatzea pentsatu duzue inoiz?

Bai, eta horretantxe ari gara, hain justu ere. Aurreko bi urteotako ikastaroetakoak eta aurtengo hitzaldiak pasa nahi ditugu paperera. Denbora behar dugu hori egiteko ere, baina lanean gabilta eta laster izango du jendeak aukera hitzaldi horiek liburuan irakurtzeko.

Euskaltzaindiko kide ere bazara. Zer moduz dago euskararen osasuna?

Euskal Herria inertzia hutsean bizi da. Mende askotan zehar, euskara goi zirkuluetatik kanpo egon da. Esan nahi dut goi eskoletatik eta goi administrazioetatik kanpo egon dela, eta hori igarri egiten dugu orain.

Bilboko notario batek kontatu zidan istorioa askotan gertatzen da. Orduan, euskaraz egin zituen eskriturak Bizkaiko lagun batek; hark euskaraz egiteko eskatu zion notarioari. Notarioak agindu bezala egin zituen, eta bezeroari entregatu eta gero, “honek ez du ezertarako balio, baina tira”, erantzun zion. Jarrera hori oso sartuta daukagu guztiok: automatikoki erdara datorkigu burura.

Agintariak euskara ez dutela zaintzen ere askok kritikatu dute.

Hiru administrazio politikoki bizi ditugu eta egoerak oso ezberdinak dira. Iparraldean, Frantziako administrazioarendako frantsesa da hizkuntza bakarra. Nafarroan ere ikusten dugu zein egoeratan bizi den. EAEn, ordea, askok uste dute osasuntsu dagoela euskara, egoera onean dagoela uste dute, eta lasaitasun hori arriskutsua izan daiteke.

Bestalde, noizbait erabaki behar dugu zer nahi dugun: edo erakundeen herria edo *txiringitoen* herria. Edo sinesten dugu erakundeetan, gustukoak izan edo ez, edo jarraitzen dugu elkarteak eta taldeak sortzen eta birsortzen. Behatokiak ere sortzen dira, ondo dago, baina agintariak egin beharko lukete lan hori.

Euskaltzaindiak, berriz, dirua falta du lana txukun egiteko.

4x4 trakziodun autoen trial proba, bihar, Eskoriatzan

Proban 30 auto inguruk hartuko dute esku; horietako erdia ibarrekoak dira

XABIER URZELAI

Bihar 15:30ean hasiko da Eskoriatzako Bolibar auzoan 4x4 trakziodun autoen trial proba. Nafarroan ezagunak badira ere lehenengo aldia da Debagoienez horrelako proba bat antolatzen dutena.

4x4 trakziodun autoek ikuskizun ederra emango dute bihar arratsaldean Bolibarren. Eskoriatzako Motorzale Elkarteak antolatuta, 30 parte-hartzaile inguru izango dira bihar euren autoekin daukaten trebetasuna erakusten.

Ibon Aranburuzabala da probako antolatzaileetako bat. Bere esanetan, bihar autoek abiadurarik hartuko ez badute ere proba oso ikusgarria izango da: "Horrelako probetan abiadura ez da garrantzitsuena, autoa gidatzen trebea izatea da balio duena. Bolibarko zelaietan zirkuitu bat prestatu dugu, zortzi gunekin osatua. Gune bakoitzean hainbat malda eta zailtasun daude, eta erlojupeko proba da. Gune guztiak ondoen gainditzin dituen izango da irabazlea".

Horrelako probak hemen ezagunak ez badira ere, Nafarroa aldean jarraitzaile asko dituzte: "Lehenengo aldia da horrelako proba bat antolatzen duguna, baina etorkizunean horrelako gehiago antolatu gura ditugu, baita Euskal Herri mailako txapelketa bat ere".

HIRU KATEGORIA

Biharko proban hiru kategoria izango dira: "Lehenengo kategorian serieko



Hiru kategorietatik prototipoak dira ikusgarrienak, goitik behera moldatutako autoak izaten dira-eta.

"Horrelako probetan abiadura ez da garrantzitsuena, 4x4 trakziodun autoa gidatzen trebea izatea da balio duena"

"Debagoienez horrelako probarik egin ez bada ere, gero eta zaletasun handiagoa dago. Nafarroan horrelako proba asko izaten dira"

autoek hartuko dute esku. Bakoitzak gura duen gupilak erabili ahal izango ditu, baina autoak ezin du hobekuntza nabarmenik izan. Bigarren kategorian hobetuak izan diren autoak ditugu. Auto horietan hainbat hobekuntza egin daitezke, suspentsio garaiagoak jarri... Eta, azkenik, prototipoen kategoria dago. Kategoria horretan autoari hainbat moldaketa egin dakiz-

kioko: xasisa moztu, adibidez. Kategoria horretan, baina, auto gutxi izaten dira, horrelako auto bat gertatzeko dirua behar delako, eta matrikulatuta egoten ez direnez leku batetik bestera eramateko atoa behar delako".

EGURALDI ONAREKIN, HOBETO

Horrelako probak ikusgarriagoak izateko lokatz apur bat egotea ia ezinbestekoa

da. Horrek ez du esan gura, baina, euriaren zain daudenik: "Duda barik, zapatuan ez dugu euririk gura. Batzundako 4x4ko autoekin ibiltzeko derrigorrezkoa da lokatzara apur bat egotea, eta horretarako gertatu ditugu bi putzu. Baina, eguraldi ona egin dezala".

Parte-hartzaileei dagoenik, besteak beste, Etxarriko, Urretxuko, Gernikako, Zornotzako eta Donostiako auto gidariak etorriko dira, baina probako parte-hartzaileen erdia ibarrekoak izango dira.

Eskoriatzako Motorzale Elkarteak gogor ibili dira lanean biharko proba antolatzen. Astebete egon dira hondeatzeko makinarekin zirkuitua egokitzen, eta bihar hiru garabi izango dira apurtzen diren autoak zirkuitutik ateratzeko.

Kirolabur

DEBAGOIENA/MEXIKARRAK GUREAN

Mexikoko Nuevo Leon eskubaloiko emakume taldea Debagoienezan izan da egunotan. Gazte mailako eta kadete mailako jokalaria izan dira ibarreko eta Gipuzkoako beste talde batzuen kontra lagunarteko norgehiagokak jokatzen. Elgoibarko, Gasteizko, Oñatiko eta Bergarako taldeen kontra jokatu dute, eta Donostian ere izan dira bisitan. Besteak beste, hemengo kirol maila zein den ezagutzera etorri dira.

ARRASATE/'PITXI' HERRERO HIL DA

Eguazten goizean hil zen Jesus Mari Herrero, 49 urte zituela. AGR Arrasate Eskubaloitza Taldeko entrenatzaileak ia urtebete egin du minbiziari aurre egiten. Kolpe gogorra jaso du Arrasateko eskubaloiak, Pitxi-k 24 urte egin ditu-eta Arrasateko taldean, bai entrenatzaile lanean eta baita zuzendaritzan ere. Arrasateko kirol taldeek —eta eskubaloitza taldeak bereziki— atzo agurtu zuten Arrasateko eskubaloien alde hain lan handia egin duen gizona.

DEBAGOIENA/GOLF TXAPELKETA

Joan den astean jokatu zuten Legution, Larrabeako Jzelaian, Debagoienezko bosgarren golf txapelketa. Aurreko edizioak Larrabeako bazkide debagoiendarrek antolatuta dituzte, baina aurtengo txapelketa Oñatiko Irelore klubak antolatu du; talde horrek dagoeneko ehun bazkide baino gehiago ditu, ibarreko hainbat herritakoak. Irabazleei dagokienez, gizonetakoetan Jon Galdos izan zen onena, eta emakumetakoetan Conchita Zumalakarregi trebeena. A kategorian, berriz, Ignazio Garatek irabazi zuen eta B kategorian Javier Ruiz de Munainek.

BERGARA/FRONTENIS TXAPELKETA

Bihar jokatuko dituzte Angiozarren Bergarako Udaberriko Frontenis Txapelketako finalerdiko eta finalerako norgehiagokak. 09:00etan izango da lehenengo partidua. Candido Hurtado eta Jose Izquierdo bikoteak Patxi Vallejos eta Xabier Albisuaren kontra jokatu du. Eta norgehiagoka hori amaitzean jokatu dute beste finalerdia. Zeingehiagoka horretan Iñaki Sanchezek eta Kepa Garciak David Bellanco eta Carmelo Barcada izango dituzte aurrez aurre. Finalerdietan aurrera egingo duten bikoteek 12:00etan jokatu dute finala.



Txinatar jatetxea
**DRAGON
ORIENTAL**



**Etxera eramaten
dizugu janaria**

- Ostiral eta zapatu gauetan izan ezik
- Gutxieneko eskaria 12 euro
- 1,8 euro etxera eramateagatik

- 30 euro baino gehiagoko eskarietan, garagardo txinatarraren opari
- 40 euro baino gehiagoko eskarietan, botila bi txinatar likore edo garagardo txinatar bi opari

- 20 minutuan etxean
- Arrasaten bakarrik

943 79 85 33

Araba etorbidea 3 ARRASATE

Elkargest

Elkarte Gastronómicoak gestionatzeko softwarea

Aritu S:Coop

943.79.13.28 - 943.71.27.39

http://www.aritu.com

aritu@aritu.com

Elkarteak: @Kontsumoak, @Kontabilitatea, @Inbentarioak, @Albaranak, @Txostenak

BAKE EPAILEA

Arrasate herriko BAKE EPAILEAren kargua betetzeko deialdia:

Baldintzak:

- 18 urte betetik izatea.
- Arrasateko udalerrian bizi zena.
- Euskara: 3. HE.

Izena emateko epea: ekainaren 30etik uztailearen 22ra arte (biak barne).

Oinarri-arauak: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila ■



MATRIKULA

Uztailaren 1etik 7ra

Ian etorkizuna gertuago duzu

Bergarako Migel Altuna institutuan, ian etorkizuna gertuago duzu!
75 urte daramatzagu kalitatezko profesionalak gertu-gertutik hezten.

Ikasle-irakasle arteko harremana lantzen dugu, punta puntako azken teknologietara egokituta gaude eta gainera sekulako erraztasunak ematen dizkizugu zure ikasketak bertako zein atzerriko enpresetan praktikan jartzeko.



GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazio eta Finantzak
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Plastiko eta Kautxugintza

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanizazioa (goizez eta gauzez)
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
- Plastikoaren eta kautxuaren eraldaketa
- Administrazio kudeaketa



943 76 24 91

943 76 38 40

www.imaltuna.com

75
urte
hezten

Zatoz eta ezagutu gure espezialitate eskaintza zabalal!



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Ibargarai I • 20570 • BERGARA

BENE-BENETTON,
ESKAINITZA ON!

%50 arte

UNITED COLORS
OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE • 943 79 50 78



LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

MERKEALDIA % **30**



ALMACENES ARRASATE

FAGOR eta ASPES etxetresna elektrikoetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERME
2
URTE

HOZKAILUA 1FA255
265 €44.092 pta



BERME
2
URTE

HOZKAILUA COMBI 1FAC495
359 €59.733 pta



BERME
2
URTE

GARBIGAILUA LA383
295 €49.084 pta



BERME
2
URTE

GARBIGAILUA LA4163
345 €57.403 pta



BERME
2
URTE

LABEA eta BITROZERAMIKA
345 €57.403 pta



%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

NO FROST

BERME
5
URTE

HOZKAILUA COMBI F7017
669 €111.312 pta



%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

BERME
5
URTE


HOZKAILUA COMBI F7007D
649 €107.985 pta



%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

BERME
5
URTE

GARBIGAILUA L7110D
529 €88.018 pta



BERME
5
URTE

**AIRE EGOKITUA
HOTZA ETA BEROA**
290 €48.252 pta tik aurrera



TELEBISTA SANYO
CE-25FV21 25" 299 € 49.749 pta.
CE-28FV21 28" 309 € 51.413 pta.

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko uztailaren 2a

Kultura
eta
aisialdia



Uztailaren
2tik 9ra



© kukuxumusu + bokart

EUSKALTELEK EUSKADI

Tourrera!

Euskaltelekin eta Goienarekin

Pirinioetako kamino bazterrak laranja kolorez ikusiko ditugu aurten ere. Horixe da, behinik behin, Euskaltelen helburua. Horretarako, 60.000 kamiseta kaleratu dituzte, eta agortzeko bidean dira, eskariak ugariak izan dira-eta.

Debagoiengan, Goienaren bitartez banatuko dira kamisetok, Euskaltelek eta Goienak egindako akordioari esker. Aurten Tourrera doazen debagoiendarrek, hortaz, Goienaren harpidetza sailarekin harremanetan jartzea nahikoa izango dute kamiseta eskuratzeko. Doan banatuko zaizkie txirrindularitza-zaleei.

Elastikoak prest, zaleak prest eta txirrindulariak ere prest, beraz, txirrindularitza lasterketarik garrantzitsuenerako. Tourra bihar hasiko da, Liejan (Belgika).

EUSKALTELEKO KAMISETA DEBAGOIENEAN

60.000 kamiseta laranja Tourrerako

GOIENAK BANATUKO DITU EUSKALTELEKO KAMISETA DEBAGOIENEAN, TOURRERA DOAZEN TXIRRINDULARITZA-ZALEEN ARTEAN

GOIENKARIA

Euskaltelek eta Goienak akordioa egin dute Tourreko kamisetak Debagoiengan banatzeko. Hain justu ere, Tourrera doazen debagoiendarrei banatuko die kamiseta Goienak.

Euskaltelek Tourrerako kalera duen kamiseta joan den eguean aurkeztu zuten. Haimar Zubeldia eta Dabid Etxebarria Euskalteleko txirrindulariek aurkeztu zuten kamiseta. Azken urteotan bezala, Kukuxumusu etxak diseinatu du oraingoan ere. Laranja kolorekoa da eta bular aldean marrazkia du: txirrindulariak (batzuk zezanak) eta zaleak (txistua eta danborra jotzen) ageri dira marrazkian.

60.000 kamiseta egin dituzte, Tourrera doazen txirrindularitza-zaleen artean banatzeko. Izan ere, Euskaltelen helburua da, aurtan ere, Pirinioetatik Tourra igarotzen denean laranja kolorez betetzea kamino bazterrak.

HIRIBURUETAN, DATORREN ASTEAN

Gaur (uztailak 2) arte izan du jendeak kamiseta eskuratzeko aukera, poltsikoko telefonoaren bitartez SMS mezuak bidalita. Eguaztenerako dagoeneko 20.000 eskaera jasota zituzten Euskaltelekoek. Mezuok bidali dituztenek Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan eskuratu ahal izango dituzte kamisetok datorren astean. Gasteizen (Turismo Bulegoan, Loma Jeneralaren plaza) uztailaren 7an, 10:00etatik 14:00etara; Donostian (Kursaal jauregian) uztailaren 8an, ordu berean; eta Bilbon (Euskalteliumen, Kale Nagusia 19- 21) uztailaren 9an, ordu berean.

Pirinioetan ere kamiseta eskuratzeko aukera izango dute bertara doazenek, uztailaren 16ko eta 17ko etapetan.



Joan den astean aurkeztu zuten Euskaltelek Pirinioei begira atera duen kamiseta. Argazkian, Zubeldia eta David Etxebarria.

ARGAZKI PRESS

DEBAGOIENEAN, GOIENAK

Asko izango dira, ordea, kamisetak eskuratzeko ohiko bidea aukeratzeko ez dutenak. Horiek, Debagoienekoak izanez gero, Goienaren bitartez eskuratu ahal izango dute, Euskaltelek eta Goienak egindako akordioari esker. Tourrera doazen guztiei banatuko zaie kamiseta (agortu arte), doan.

Lehentasuna izango dute antolatutako bidaian, hau da, taldeka, doazenek. Baina bakaraka doazenek ere izango dute aukera. Horretarako, nahikoa izango

da Goienako harpidetza sailarekin harremanetan jartzea 902 36 38 51 telefonora deituta. Astelehenetik aurrera egin daitezke deiak. Jakina, lehentasuna izango dute lehenengo deitzen dutenek, ze kamiseta kopuru mugatua izango da.

Eskaria egin dutenen datuak jasoko dituzte Goienako harpidetza sailekoek, eta, horren ondoren, harremanetan jarriko dira eskaria egin dutenen artean, kamiseta non eta noiz jaso dezaketenez zehazteko. Goienako egoitzetan banatuko dira kamisetak.

da Goienako harpidetza sailarekin harremanetan jartzea 902 36 38 51 telefonora deituta. Astelehenetik aurrera egin daitezke deiak. Jakina, lehentasuna izango dute lehenengo deitzen dutenek, ze kamiseta kopuru mugatua izango da.

Tourrera joateko asmoa dutenek doan jaso ahal izango dute Euskalteleko kamiseta

Kamiseta jaso nahi dutenek nahikoa izango dute 902 36 38 51 telefonora deitzea

Aurtan 60.000 kamiseta kaleratu ditu Euskaltelek, baina baliteke beste 20.000 kaleratzea



BAINU GELAK • KERAMIKAK • SUKALDEAK

jakina

PROIEKTUAK • ERREFORMAK • GREMIOEN KOORDINAZIOA

Tel. 943 76 03 30 • Fax. 943 76 02 91
Amillaga 10 behe, San Lorenzo Pol. Ind. • 20570 BERGARA

JANTZI LARANJAZ PIRINIOAK

Kamiseta gainean eta ibili munduan

HAINBAT ZALERI GALDETU DIOGU PIRINIOETAKO LARANJA KOLORE UHOLDEAREN ETA TOURRERAKO FAVORITO NAGUSIEN GAINEAN



ANTON ELORTZA

ANTON TABERNA, OÑATI


Oso ondo iruditzen zait Euskaltelen kamisetak oparitzea. Aurtengoa ez dut oraindik esku artean eduki, baina ikusi dut. Pirinioek laranja kolorea hartzen dute eta herria txirrindulariekin eta taldearekin dagoela ikusten da. Sekulako giroa egoten da. Podiumean ikusten dut Iban Mayo.



UNAI ARANTZABAL

TXIRRINDULARIA, BERGARA


Zortzi urte jarraian egon naiz Tourrean, baina aurten ez noa. Gu Ikurrinekin joan izan gara beti. Hala ere, ideia ona iruditzen zait Euskaltelen kamisetak banatzea, taldea animatzen lagunduko dutela uste dut. Gai-nontzean, zaila izan arren, badut esperantza Mayo podiumean ikusteko.



MANOLO ZUBILLAGA

ERRETIRATUA, ARETXABAETA

Txirrindulariei ilusio handia egingo die horrenbeste jende laranja jantzita ikustea. Horrek indarra emango die, eta oso ondo iruditzen zait kamisetak eskualdean banatzea. Dauphine-Libereko lasterketa ikusi eta gero, Iban Mayo derrigor ikusten dut podiumean, eta Haimar Zubeldia lehenengoan artean.



JON OREGI

MARKELÉN LAGUNART. PRESID.

Ideia bikaina iruditzen zait. Laranja Euskaltelen kolorea da, eta bizitasun handia emango die etapei. Doan ematea ere oso ondo dago: izan ere, jarraitzaileek nahikoa diru eta denbora ipintzen dute bestela ere. Euskaltel taldea oso indartsu ikusten dut; lan polita egingo dutela ziur nago.



OIHANE ETXEBARRIA

TXIRRINDULARI OHIA, ARETXABA.


Euskaltel taldearen eta euskaldun jarraitzaileen ikur bihurtu dira kamisetak, hortaz, oso ondo iruditzen zait horiek banatzea. Iban Mayo oso ondo ikusten dut; Armstrong %100-era ez badago, arazoak sortuko dizkio Mayok. Neure anaia Unai inoiz baino motibatua goa Tourrera.



JESUS ARANZABAL

'MAXIMS' TABERNA, BERGARA

Gu ere urtero joaten gara, Ikurrina eta guzti. Oso giro ona egoten da Pirinioetan, denak kamiseta laranja jantzita. Laisekak irabazi zuen etapan zegoen giroa ikaragarria izan zen. Aurten etapa motelak ikusten ditut. Tourra gogorra eta zaila da, baina Mayo podiumean egongo da, akaso.



JESUS IBABE

MONTE TABERNA, ARRASATE


Oso garrantzitsua da Euskaltel taldea animatzea, eta kamisetak horren zati dira. Iazko zaleen irudia buruan daukat oraindik. Euskaltel taldea oso ondo arituko dela uste dut; primerako taldea dute aurten, gero eta indartsuago ibili dira. Iban Mayok sekulako etapak egin ditu, eta oso ondo ikusten dut.



GURUTZE ALTUNA

TXIRRINDULARIA, OÑATI

Duela zortzi-bederatzi urte izan nintzen Tourra ikusten, eta orduan ez zegoen kamiseta uholdea. Telebistaz ikusi ditudanean, ordea, beti galde-tu izan diot neure buruari non demontre lortuko ote zuten horrenbeste lagunek kamiseta bana. Oso ideia ona iruditzen zait Goienarekin banatzea.



PELLO GARITANO

LOKATZA ELKARTEA, BERGARA

Urtero joaten gara gu kamiseta laranja jantzita, eta aurten ere joango gara, ematen badizkigute. Pirinioetara eta Alpetara goaz aurten. Giro ikusgarria egoten da eta primeran pasatzen dugu. Euskaltel oso indartsu ikusten dut, eta aurtengo Tourrean lan ona egingo duela uste dut.



JONE MUXIKA

TXIRRINDULARI OHIA, ELGETA

Euskal txirrindulari gehiago ere izango dira Tourrean, baina Euskaltel-Euskadikoak indarberritu egingo dira horrenbeste zale laranja jantzita ikustean. Taldea, gainera, oso ondo ikusten dut, indartsu, eta Iban Mayo ondo ibiliko dela uste dut. Aukera asko ditu aurrean egoteko.

Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49 BERGARA

Gora euskal txirrindulariak!

DEBAGOIENENKO ZALEAK

Debagoiendar asko Pirinioetan

TALDEKA, NORBERAREN KONTURA, BIDAIA ANTOLATUETAN... MODU ASKOTARA, BAINA JENDE ASKO JOANGO DA IBARRETIK TOURRERA

ENEKO AZKARATE

Euskaldun askok jarraituko ditu gertu-gertutik eta zuzenean Tourreko etapak. Gehienak Pirinioetara hurbilduko dira uztaileko hirugarren asteburuan; beste batzuk Alpeetara. Gure ibarrean ere pilo joango dira, batez ere Pirinioetara.

Oñatiko Garmendia eta Odriozola lagunartean eta Lizarralde Kirok dendararen ekimenez, esate baterako, aurten ere ia 200 lagun abiatuko dira Pirinioetara gure ibarretik, gehienak Oñatitik. Euskal Herri osoan ez dago horrenbeste lagun talde Tourra ikustera joango denik. Eta hori, jendea taldeka toki guztietatik abiatzen dela Pirinioetara. Hiru autobus erango dituzte hauek, "berriberriak", gainera, Mikel Lizarralde antolatzaileetako batek adierazi digunez. "Eta, horretaz gain, furgoneta bat eta kamioneta handi samar bat, janaria eta azpiegitura kontu guztiak garraiatzeko". Tokiak-eta hartuta dituzte: La Mongieko etapa amaieratik bost kilometrora kokatuko dira lehenengo egunean. "Joan zen astean izan nintzen Frantzian, Pirinioetan, hainbat nekazarirekin harremanetan, zelaian jabeekin, guretako moduko zelai baten bila, eta topatu dugu toki egokia", diosku Mikelek.

Giroa ere bikaina izango dute, trikitilari eta bertsolari eta guzti. Izan ere, kirolaz gozatzeaz gain, ondo pasatzea da helburu nagusia.

Bi egunerako doa talde handi hau: uztailearen 15ean, eguenean, aterako dira Oñatitik eta egubakoitzeko eta zapatuko etapak ikusi ostean, zapatu gauean bertan egingo dute itzulerako bidaia.

MOTEA ALTERNATIBA ONA

Talde txikiagoetan, binaka, hiru-naka... joaten direnak ere badira. Batzuek, gainera, kirola egi-



JULEN IRIONDO

laz bezala aurten ere zale debagoiendarrek Pirinioetako kamino maldatsuak hartuko dituzte.

Etapak banan-banan

Eguna	Etapak	Ibilbidea	Luzera, km.	Zailtasuna
3	Atariko	Lieja (Erlojupekoa, banaka)	6,1	●●●●
4	1.goa	Lieja-Charleroi	202,5	●●●●
5	2.	Charleroi-Namur	197	●●●●
6	3.	Waterloo-Wasquehal	210	●●●●
7	4.	Cambrai-Arras (Erlojupekoa, taldeka)	64,5	●●●●
8	5.	Amiens-Chartres	200,5	●●●●
9	6.	Bonneval-Angers	196	●●●●
10	7.	Chateaubriant-Saint Brieuc	204,5	●●●●
11	8.	Lamballe-Quimper	168	●●●●
12	-	Atsedena	-	-
13	9.	St. Léonard de Noblat-Guéret	160,5	●●●●
14	10.	Limoges-Saint Flour	237	●●●●
15	11.	Saint Flour-Figeac	164	●●●●
16	12.	Castelsarrasin-La Mongie	197,5	●●●●
17	13.	Lannemezan-Plateau de Beille	205,5	●●●●
18	14.	Carcassonne-Mimes	192,5	●●●●
19	-	Atsedena	-	-
20	15.	Valréas-Villard de Lans	180,5	●●●●
21	16.	Bourg d'Oisans-L'Alpe d'Huez (Erlojupekoa, banaka)	15,5	●●●●
22	17.	Bourg d'Oisans-Le Grand Bornand	204,5	●●●●
23	18.	Annemasse-Lons le Saunier	166,5	●●●●
24	19.	Besancon-Besancon (Erlojupekoa, banaka)	55	●●●●
25	20.	Montereau-Paris	153	●●●●

Oñatikoek antolatuta, aurten ere ia 200 lagun abiatuko dira Pirinioetara hiru autobusetan

Bergarako 10 bat laguneko koadrila Alpeetara abiatuko da aurten 28. aldiz; Andorrako etapa ere ikusiko dute

teko ere aprobetxatzen dute, bizikleta hartu eta Pirinioetako mendate gogor eta ospetsuak igotzeko. Horixe da, esaterako, Esteban Lazkano eta Iñigo Arantzabal bergararren kasua, iaz Peyresourdeko mendate gainean aurkitu genituenak.

Motoan joaten direnak ere badira. Oso garraibide egokia da, gainera, kontuan izanda etapa amaitzen denean, mendateetatik gertu sortzen diren auto ilarak. Jon Ander Egaña eta Bittor Zangitu bergarrek horixe garraibide horixe erabili zuten iaz Peyresourdeko eta Luz Ardideneko etapak ikusteko. Eta oso ondo moldatu ziren moto gainean, alde batetik bestera ibiltzeko. Aurten oraindik ez dute erabaki joango diren edo ez.

ALPEETARA, URTERO

Pirinioetara ez, baina Alpeetara urtero doazenak ere badira, gutxiago izan arren. Aurten ere joango dira hara Pello Garitano, Juan Luis Arregi, Fernando Ezenarro, Felix Maiztegi... bergararrak, hamar bat lagun guztira. Urteak daramatzate—28 urte aurten—uztailean Tourreko plana egiten: mikrobusa hartu eta, bizikleta eta guzti Alpeetara. Pirinioetako Andorrako etapa ikusiko dute eta handik Alpeetara abiatuko dira. Uztailearen 16an irten eta 24an itzuliko dira etxera.

EROSKI BIDAIAK

Eroski Bidaiak agentziaren bitartez ere joan ahal izango da Tourrera. Pirinioetako bi etapak ikusteko antolatu dute irteera: uztailearen 15ean gaueko 10etan atera hemendik eta 17an, zapatuan, etapa amaitutakoan, itzuli. Bidaia-eta lo egin autobusean bertan, literetan. Prezioa: 65 euro. Informazio gehiago 943 76 53 79 telefonon eskura dezakezue. Busa irten dadin 35 lagunek gutxienez eman beharko dute izena.



STADLER, S.A.
PIEZA METALIKO SINTERIZATUAK

Santxolopetegi auzoa 26 - 21 P.K.
Tel.: 943 78 07 11 - 943 78 06 98 • Faxes: 943 78 02 58
stadler@stadler.es - 20560 OÑATI

Zale onenak,
euskaldunak!

DEBAGOIENENKO ZALEAK

MIKEL LIZARRALDE / LIZARRALDE KIROL DENDAKOA

“Uste dut aurten goizegi dela Mayok irabazteko”

Mikel Lizarralde da gure ibarretik Pirinioetara joango den 200 laguneko bidaiaren antolatzaileetako bat.

Noiz hasten zara hau dena antolatzen?

Denboraz, bi hilabete lehenago-edo. Hala ere, hartu diogu eskua. Izan ere, urtetik urtera dena apuntatzen dugu, jakiteko zer egin zen ondo, zer egin zuen huts, janaririk falta izan den edo ez...

Zenbat janari eroango duzue?

60 bat kilo saiheski, hiru-giharra beste 50 bat kilo, txorizoa ere beste kaxa piloa, 150 kilo patata, 300 ogi, gailetak, madalenak, esnea... Eta, edateko ere, piloa: 20 barril garagardo 50 litrokoak, 50 kaxa ardo, beste horrenbeste kaxa xanpain, pattarra...

Kirol kontuei dagokienez, zein ikusten duzu Tourra irabazteko faborito?

Gurako nuke Iban Mayok irabaztea, baina uste dut aurten goizegi dela. Oraindik ere amerikarra da faborito nagusia, baita Jan Ullrich ere. Eta gero, Hamilton hor dago, Herasek ere auskako zer egiten duen...

Non erabakiko da aurten lasterketa?

Lehenengo etapak oso lauak dira, baina arriskutsuak ere bai,



Kamiseta laranja jantzita daukela, Tourrera joango da Mikel aurten ere.

“Aurten Tourreko azken zortzi egunak oso gogorak dira: Pirinioak eta jarraian Alpeak”

haizeagatik eta erorketengatik batik bat. Gero, azken zortzi egunak oso gogorak dira: Pirinioak eta jarraian Alpeak. Uste dut Alpeetan erabakiko dela guztia.

Gero, mendiko etapak bai, baina taldekako erlojupekoa, hori ere erabakigarria izan daiteke.

Jon Odriozola ez da Tourrean izango. Zer iritzi duzu Kelmerekin gertatu denaren inguruan?

Tourrak irudia zuritzeko erabili ditu Kelme eta Cofidis. Baina Kelmeko Valverde da aurten karerra gehien irabazi dituen, eta dopinaren aurkako kontrol ugari pasa ditu; ez du positiborik eman.

Belokirena ere pena izan da. Bai, hala da. Hark ere merezi zuen egotea, baina...

TOURREKO PORRAK

Aurten, 10.000 euro saritan

LEIRE KORTABARRIA

Ibarreko apustu-zaleek bi aukera dituzte Tourreko porretan parte hartzeko: Arrasateko Monte tabernakoa, klasikoa, eta Bergarako Lokatza taldearena. 10.000 euro banatuko dira saritan.

Horiek dira kalkuluak: Monteko porra eta Lokatza txirindulari eskolarena batera hartuta, dirutza ederra banatzea espero da. Debagoiengan, hitzordu oso ezaguna dute apustu-zaleek Arrasateko Monte tabernako porrarekin; izan ere, 14. aldia du aurten, eta antolatzaileek aurreikusten dute 9.000 bat euro banatzea. Ez da harritzekoa, porraren ospea kontuan hartuta: kanpotik ere jende asko etortzen da apustua egitera.

Bergarako Lokatza taldeak bigarren urtez antolatzen du porra. Iaz 200 lagunek parte hartu zuten eta 1.500 euro banatu



Arrasateko Monte tabernarena da Tourrerako antolatzen den porrarik ospetsuena.

ziren saritan. Aurten, marka hori gainditzea espero dute Lokatza-koek, eta Interneteko www.nahikari.com/lokatza gunean emango dute lehiaketaren berri.


Apustua egiteko mugaeguna

domoka izango da, 14:00etan. Izan ere, zerrenda ofizialak bihar, zapatua, aditzera emango dira, eta aitzinetapa, prologoa, ez da porretan kontuan hartuko.

DEBAGOIENDARRAK TOURREAN /21


PERFILAK

12. etapa / Uztailaren 16a / 197 km
CASTELSARRASIN - LA MONGIE



Pirinioetako lehenengo etapa izanik, eta batez ere Aspin eta Tourmalet gainak igo beharko dituztela kontuan izanda, aldeak eta ustekabeak sor daitezke. Mayo eta Herasendako aukera.

13. etapa / Uztailaren 17a / 205 km
LANNEMEZAN - PLATEAU DE BEILLE



Etapla gogorra benetan, Tourreko nagusietako bat, Alpe d'Huez-eko kronoigoerarekin batera; aldeak sortuko ditu, batez ere azken igoerak. Bereziki gogorra da Plateau de Beilleko azken kilometroa.

EROSKI BIDAIEKIN TOURREA!

Bidaiatu Eroskirekin Tourrera

65€

BUSA LITEREKIN
Irteera uztailaren 15ean 22:00etan

Uztailak 16 Mongien etapa amaiera.
Uztailak 17 Ax Les Thermesen etapa amaiera.
Etapa hori amaitu ondoren itzulera.

Busa irten dadin 35 lagunek gutxienez eman behar dute izena

IRTERAK HAINBAT HERRITATIK

Informazio zabalagoa Eroski Bidaiek agentziako bulegoetan edo 943 76 53 79 telefonoan

Viajes Eroski
Bidaiek

Grupo Eroski

Kalitatea Bermatuta

EROSKI

eskaintza gehiago www.viajeseroski.es

bai

MARKEL IRIZARREKIN BERRIKETAN

MARKEL IRIZAR / EUSKALTELEKO TXIRRINDULARIA

“Talde moduan, azken urteetako Euskaltel Euskadi onena joan da aurtengo Tourrera”

OIHANA ELORZA

Taldekideak sekulako maila onean daudela esan digu Markel Irizarrek. Hala ere, Tourra irabaztea edonondako dela zaila gaineratu du. Euskaltelek bi lider eta zazpi langile izango ditu aurtengo Tourrean.

Derrigorrezko galdera: Mayok irabaziko du Tourra?

Nahiko nuke, bai. Asturiasen egon ginenean, elkarrekin egon ginen gelan, eta askotan hitz egiten genuen Tourraz. Mayok bada ki oso zaila izango dela, baina saiatzeko gertu dago. Armstrong eta Ullrich maila berean ikusten ditut nik, eta horien ondoan, Mayo, Hamilton eta Heras. Nik uste dut bost horien artean banatuko direla lehen hiru postuak. Haimar Zubeldia, berriz, Mançeboren eta Bassoren ondoan ikusten dut.

Nolako Euskaltel-Euskadi joan da Frantziara?

Dabid eta Iban oso ondo daude; Haimar ere jendeak uste baino hobeto dago. Orokorrean, talde osoa dago ondo, sasoi betean.

Azkenaldian, ordea, presio handia ari da sufritzen. Inoiz egin ez diren gauzak egin dira aurtengo Tourrari begira: kronoigoerarako bizikleta berezia izango dute taldekideek, adibidez.

Manolo Saizek esan du Armstrong eta Ullrich direla faboritoak, gainontzekoek irabazi egin behar dutela.

Lehen, ONCE eta Banesto taldeen artean zeuden tirabira handienak. Orain, berriz, Banestoren eta Euskaltelen artean. Iban Mayo da, ziurrenik, Estatuan dagoen figura garrantzitsuena, eta normala da besteek protagonismoa kentzen saiatzea. Hala ere, argi dago Armstrong eta Ull-



Telebista eta egunkari bidez jarraituko du Markel Irizarrek Tourra; porra ere egin du lagunekin eta etxeokoin.

rich direla faborito nagusiak, Tourra irabaztea zer den bada kitelako; eta Iban Mayo irabazteko hautagaien artean dago, Hamiltonekin batera.

Iban Mayori eta Haimar Zubeldiari laguntzeko osatu du taldea Euskaltelek?

Bai, bai. Argi dago gure taldeak bi lider eta zazpi langile izango dituela. Aurreko urteotan Dadid Etxebarriak eta Roberto Laisekak etaparen bat edo beste irabazteko egin zuten lan, baina aurtun, zazpi txirrindulariak Mayori eta Zubeldiari begira egongo dira.

Horrelaxe prestatu du taldeak Tourra. Dauphine-Libere las-

*“Nire iritzi,
guretzat izan
daitekeen
Tour proposena
da aurtengoa”*

terketan egin duen lana, adibidez, sekulakoa izan da. Nire iritzi, talde moduan azkenaldiko Euskaltel-Euskadi onena izango da Tourrean.

Zer iruditzen zaizkizu Tourreko etapak?

Nik uste dut guretako izan daitekeen aproposena dela aurtengo Tourra. Erlojupekoan, oraindik ez dute argi, baina ezin dezakete bi minutu eta erditik gora galdu; eta ziurrenik, postuen arabera izango da. Bestalde, erlojupeko lau bat kendu egin dute eta kronoigoera bat sartu. Erlojupeko lau bakarra azkena da, eta hor indarrak zerikusi handia izango du, eta Ibanen ezaugarrietarako hori ona da.

Zeri diote beldurra?

Beldur handien lehenengo asteko etapei diete, Liejakoari batez ere. Hala ere, lehen egun horietan ondo ibiliz gero, konfiantza hartuko dutela uste dut.

Beste era batera prestatu da aurtun Euskaltel-Euskadi?

Bai, prestateta osoa da ezberdina: kronoigoerarako (L’Alpe d’Huez), adibidez, bizikleta berezia eraman dute; Liejako ibilbidea ikusteko egun bat lehenago joan dira. Taldea indartsu dago, eta antolaketa beste urte batzuetan baino hobeto egin dute.

Zer gertatuko da Mayok irabazten ez badu?

Berez, ez luke ezer gertatu behar. Egia da hasieran Mayo podiumean ikusten duela jendeak. Askok baita irabazlearen tokian ere. Horien iritzi, galtzen badu, badirudi ez duela ezer egin, eta hori larregikoa da. Duela egun batzuk esan zuten Dabid Etxebarriak jendeak konturatu behar duela nortzuk garen, taldea nolakoa den. Taldekide guztiak hemengoak gara, etxeokak, eta horrelako talde bat Tourrean egotea eta horrelako mailan egotea sekulakoa da. UCiren zerrendan zazpigarren talde onena da Euskaltel.

Asko dago jokoan, ezta?

Bai. Tourra dena da momentu honetan Euskaltelendako. Egia da denok laino antzerako batean gaudela. Asturiasen eta Dauphinen egindako lasterketa onak eta txirrindulariek emandako maila onak dena ondo aterako dela iragartzen dute, baina errespetuare ere ematen du Tourrak.

Zortea ere behar da, bestalde. Egia esatearren, beldur handiago diot gorpila zulatzeari edo haize-babesa (abaniko famatuak) sortzeari, taldekideek duten mailari baino.

Joango zara Tourrera?

Bai. Gainera, taldekideek esan didate egunen batean euren hotelera joateko, bisitan. Oraindik ez dut erabaki non ikusiko ditudan, baina joango naiz.

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Tourra 2004

Uztailaren 19an, astelehena, 20:30ean

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

EUSKAL
HERRIKO
ITZULIA
Babeslea:



MUEBLES FERNANDEZ



EUSKAL TXIRRINDULARIAK

Goi mailako euskal ordezkariak

AURTEN 16 EUSKAL TXIRRINDULARI DOAZ TOURRERA, ETA BATZUK AURRE-AURREAN IBILIKO DIRA: MAYO, ZUBELDIA, GALDEANO...

GOIENKARIA

Tourrak beti izan du euskal ordezkariak: zaleek beti erantzuten dute, batez ere Pirinioetan; zuzendariak, medikuak, masaje emaleak, teknikariak... Asko dira. Txirrindulariak 15 izango dira aurten. Euskaltelek 8 izango ditu, Gorka Gonzalez kanpoan geratu delako ematokrito tasa gainditzearen.

IBAN MAYO

EUSKALTEL-EUSKADI

Sailkapen nagusian goren geratzeko aukera handien dituen da. Boladan dago.

HAIMAR ZUBELDIA

EUSKALTEL-EUSKADI

Iaz baino finago dabilela diote harekin dabiltzanak entrenamenduetan. Lasterketetan, hala ere, ez da horren fin ibili. Iaz bosgarren egin zuen eta aurten podiuma du helburu.

DAVID ETXEBARRIA

EUSKALTEL-EUSKADI

Esperientzia handikoa, zazpigarren Tourra du. Etaparen bat irabaz dezake.

UNAI ETXEBARRIA


EUSKALTEL-EUSKADI

Mayo eta Zubeldiarendako Mezinbesteko taldekidea. Bosgarren Tourra du.

IKER FLORES

EUSKALTEL-EUSKADI

Esperientzia handirik ez izan arren, mendian lan



Aitor Osa (Illes Balears).



Iban Mayo (Euskaltel-Euskadi).



Igor Gonzalez de Galdeano (Liberty).



Txente Garcia Acosta (Illes Balears).



Mikel Pradera (Illes Balears).



Haimar Zubeldia (Euskaltel-Euskadi).

AITOR OSA

ILLES BALEARS-SANTANDER

Anai Unai ez du alboan Aizango. Untzueren taldeko ardatzetako bat izango da. Udaberrian gogor ibili da.

MIKEL PRADERA

ILLES BALEARS-SANTANDER

Hirugarren Tourra malla-biarrarendako. Taldegizona, Mentxov eta Manceborendako laguntza handikoa.

TXENTE GARCIA ACOSTA

ILLES BALEARS-SANTANDER

Tourrera doazen euskaldunen artean, esperientzia handien dutenetakoa. Etapa lauetan irabaz dezakeena.

XABIER ZANDIO

ILLES BALEARS-SANTANDER

Iruindarra, oso txirrindulari egokia da taldeko liderari laguntzeko.

IGOR GONZALEZ GALDEANO

LIBERTY SEGUROS

Euskalteko Mayorekin batera, sailkapen nagusirako faboritoetako bat.

MIKEL ASTARLOZA

AG2R

Osasun arazoak izan ditu Udaberrian, baina sasoko iritsiko da Tourrera.

AITOR GONZALEZ

FASSA BORTOLO

Oraingo delata urte bi irabazi zuten Espainiako Itzulian erakutsi zuen hiru asteko lasterketetarako egokia dela.

handia egin dezake eta Zubeldiari zein Mayori lagundu.

IÑIGO LANDALUZE

EUSKALTEL-EUSKADI

Gorabehera gutxikoa, Erregularra batik bat, edozein arlotan bikain

erantzuten du, laguntza handia eskainiz taldeari.

IKER CAMAÑO

EUSKALTEL-EUSKADI

Lehen Tourra izango du, Ubaina Mayok konfiantza handia du Camañorengan.

EGOI MARTÍNEZ

EUSKALTEL-EUSKADI

Sendotasun handikoa da, Seta sasoko dago, gainera. Nafarrarendako ere lehenengo Tourra izango bada ere, Euskaltelendako laguntza handikoa izango da.



LEHENA SEGURTASUNEAN

RENAULT

RENAULT MEGANE BERRRIA
12.600 €**-tik aurrera
Prever plana barne
Eta gainera, Renault Megane berria Comfort Expression 1.5 dCi 80 ZP, 5 ate, aire girotua, ABS, EBV, SAFE, ISOFIX eta 6 aire-zaku.
15.300 €**-gatik **2.200 €**
Prever plana barne

RENAULT SCENIC BERRRIA
15.100 €**-tik aurrera
Prever plana barne
Eta gainera, Renault Scenic berria Comfort Expression 1.5 dCi 80 ZP, aire girotua, *BS, EBV, SAFE, ISOFIX eta 6 aire-zaku.
16.900 €**-gatik **2.200 €**
Prever plana barne

Megane familian, segurtasuna berezkoa da.

LEHEN 5 KUOTAK DOAN 72 HILABETERAKO FINANTZAZIOAREKIN, SARRERARIK GABE, UTB %**5,93***

RENAULT
AUTOBERRI

ARRASATE

AZPEITIA

ELGOIBAR

IRÚN

TOLOSA

Ez dago inongo zalantzarik. Megane 7 modeloek betetzen duten ezaugarri bat da: Coupe-Cabriolet, Megane 3 edo 5 ate, Sedan, Grand Tour, Scenic eta Grand Scenic 7 eserlekurekin. Segurtasun osoarekin zure beharretara egokitzen diren 7 karrozeria, aisialdirako Coupetik hasi eta familiar batera arte.

* Renaulteko eskaintza hau ondorengoendako da: partikularrak, autonomoak eta flotistak ez diren enpresak, gehienez bi automobil erosten dituztenak. Epemuga: 04/07/31 Renault Megane gama osoarentzat, Renault Scenic bertsio guztientzat, Megane Coupe-Cabriolet. T. Nominala %7,95. Irekiera komisioa %2,3. RECSAK oparitutako kuotak. RBE zenbakia 1184/04.
** Bezeroarentzat gomendatutako prezioa, BEZA, garrarioa, matrikulazio zerga, promozioa eta Prever plana barne. Balizko eskaintza 2004ko uztailaren 31ra arte. Iragarrikiko modeloak: Renault Scenic Luxe Privilege 1.6 16 v 115 ZP, Renault Megane Luxe Privilege 1.9 dCi 120 ZP.
Renault Megane eta Renault Scenic gama. Kontsumo mistoa (l/100 km) 4,2-11,2 bitartekoa. CO2-igorpena (g/km) 110etik 267ra bitartekoa.

Uztailak 2-9

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

MATRIKULAK

BERGARA

► **Ipintza institutuak** 2004/2005 ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du uztailaren 7ra bitartean, eguaztena. Horretarako, jo ikastetxeko bulegoetara, 09:00etatik 13:30era bitartean.

DEIAK

ARAMAIO

► **Bertso saioa** izango da etzi, domeka, honako bertsolariekin: Estitxu Eizagirre, Estitxu Arozena, Ander Arriolabengoa eta Jon Martin. 20:00etan izango da.

► **Zuiako koadrilara bisita gidatuak** antolatu dituzte, egun osokoak edo egun erdikoak. Datozen egunotan, hauek daude aukeran: etzi, domeka, Urjauzien Ibilbidea; hilaren 10ean, Dorretxeen Ibilbidea. Bisita egunaren bezperan eman behar da izena. Argibideetarako, deitu 945 14 55 99 telefono zenbakira.

ARETXABALETA

► **Kantabriara irteera** antolatu du Basotxo erretiratuen egoitzak uztailaren 8rako, eta gaur, egubakoitza, duzue izena emateko mugaeguna. Laredo, Islares eta Castro Urdiales bisitatuko dituzte.

ARRASATE

► **Europar bidaiatzeko aholkuen** gaineko hitzaldia izango da martitzenean, hilak 6, Monterronen, 19:00etan.

BERGARA

► **San Martzialgo erromeriarako** mahai eta aulkiak jasotzeko, jo San Martzialgo kantina ondora bihar, zapatua, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Berriz, alokairuari dagokion fidantza jasotzeko honako egun eta ordua finkatu du udalak: hilaren Setik 9ra bitartean, kultura etxean, 16:00etatik 19:00etara.

► **San Martzialera joateko autobus zerbitzua** antolatu du udalak. Hain zuzen, egun horretan, etzi, domeka, herri-autobusa doan izango da 10:30etik 20:00etara bitartean. Bestalde, bertara autoz igo nahi dutenek kontuan hartu behar dute igoera Santa Marinatik egingo dela, eta jaitziera, kilometroetarako ibilbidetik. 15:00etan itxi egingo dute Santa Marinarako igoera autoendako.

► **Odol-ateratzeak** izango dira hilaren 7an, eguaztena, Seminarioan, 18:30ean.

ELGETA

► **Bertso emanaldia** egingo dute Beñat Ugartetxea, Mikel Arrillaga, Andere Arriolabengoa eta Jokin Labaienek gaur, egubakoitza, 13:00etan.

OÑATI

► **Hego Ameriketako mendien inguruko** diapositiba emanaldia egingo du Jabier Atxak eguaztenean, uztailak 7, kultura etxean, 19:30ean. Makalena elkarteak antolatu du, 25. urteurrenko ekitaldien barne.

► **Danborradan parte hartzeko izenemate epea** zabalik dago hilaren 23ra bitartean, kultura etxean edo gaztelekuan. Hain zuzen, jaietako danborradan danbor-jotzaile moduan irteteko 18 urtetik gorakoak behar dituzte, eta dantzari izateko, 1987. urtean jaiotako lagunak.

► **Haitiko eta Dominikar Errepublikako kaltetuei** laguntzeko diru-bilketa deitu dute Udal Ongizate Batzordeak eta Elizbarrutiak. Hain zuzen, maiatzaren 24ko euri-jasa bortitzak kaltetutakoei lagundu gura diete. Bi kontu zabaldu dituzte horretarako: Kutxan, 2101 0057 57 123325870; Euskadiko Kutxan, 3035 0005 30 0050032138.

► **Oñatiko ondarea ezagutzeko** hainbat ibilbide gidatu antolatu ditu Turismo Bulegoak. Hain zuzen, arte eta historiaren inguruko bi ibilbide daude aukeran, bata uztail eta abuztuan eta

bestea abuztuan. Uztail eta abuztukoak Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia erakusten ditu. Bestalde, natura ondarearen gaineko zortzi ibilbide daude abian, uztailaren 15era bitartean. Honakoak dira gaiak: Orkatzategiko hegaztiak, mitologia eta aurre-historia, Arantzazu erreka eta kobazuloak, basoak eta ikazkinen lanbidea, larreak eta artzaintza, Araozko nekazal ingurunea, uraren ibilbidea eta Aizkorriko tontorrak. Argibide gehiagorako, deitu 943 78 34 53 telefonora.

► **79an jaiotakoek** kinto batzarra izango dute uztailaren 17an, zapatua. Poteoa, bazkaria Etxe-Aundi jatetxean, eta dantzaldia izango dituzte, besteak beste. Izena emateko, sartu 30 euro Kutxako honako kontuan: 2101 0057 57 0124516295. Uztailaren 7a da mugaeguna.

► **San Ferminetara irteera** antolatu du Pake Leku erretiratuen elkarteak uztailaren 12rako, astelehena. Lizarra eta Iruñea bisitatuko dituzte, eta San Ferminetako giroaz gozatu. Izena emateko, jo elkarte bulegoetara, astelehen edo eguaztenean, 18:30etik 20:00etara bitartean.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Maitasuna eta askatasuna** izeneko argazki erakusketa dago Jai Zale tabernan etzira bitartean, domeka. Mikel Zabalaren lanak dira. Gay eta lesbianen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu dute erakusketa.

ELGETA

► **Euskal Jaiak** delako argazki erakusketa ikusteko aukera izango da Espaloia Kafe Antzokian uztailaren 9tik 11ra bitartean.

ESKORIATZA

► **Museo Eskolan** hiru erakusketa daude zabalik: Aita Emiliano Barandiaranen gainekoa, baserriko txerri lanen ingurukoa, eta trenaren eboluzioaren ingurukoa. Hauze duzue uztailako ordutegi berria: 09:00-13:30 eta 16:00-19:00.

► **A-1 autopista Eskoriatzan: inpaktua gutxitzeko proposamenak** delako erakusketa dago zabalik kultura etxean.

OSPAKIZUNAK

ARAMAIO

► **San Martin jaiak** ospatuko dituzte hilaren 2tik 5era bitartean. Gaur, egubakoitza, pregoia, etxafuegoak, bertso poteoa... izango dira. Bihar, zapatua, Txirritolinpiadak, sagardo-poteoa, umeen antzerkia eta abesbatzaren emanaldia, erromeria... Etzi, domeka, meza, herriko dantzari eta trikitilarien saioa, jolas parkea, txaranga, herri kirolak, bertso saioa eta mariachiaren emanaldia izango dira. Astelehenean, hilak 5, umeendako jolasak, Arrasate Musikalen emanaldia, txaranga, herri afaria, eta beste hainbat ekintza egingo dituzte.

ARRASATE

► **Errozioaren erromeria** izango da etzi, domeka, Arruena parkean (Eroski ondoan). Al-Andalus kultura elkarteak antolatu du.

ELGETA

► **Azoka Nagusiko jaien barne,** honako ospakizunak izango dira egunotan, beste batzuen artean: bihar, zapatua, paella jana, Herriko Plazan; fanfarea, zezenak, dantzaldia, rock kontzertua... eta etzi, Azoka Nagusiko egunean, azoka hasiko da 09:00etan, eta pilota partidua, dantzaldia eta antzerkia ere izango dira.

OÑATI

► **Zubillaga auzoko jaiak** hasiko dira gaur, egubakoitza. Txupinazoa, herri txikiteoa... izango dira. 22:30etik 01:00etara bitartean, film labur emanaldia izango da pilotalekuan. Bihar, zapatua, 16:30ean, Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoaren emanaldia izango da frontoian, eta baita umeendako jolasak eta txokolatada ere. 17:00etan, Mus Azkar txapelketa. 19:30ean, Amets Arzallus, Mañukorta, Jexux Mari Irazu eta Sustrai Colinaren bertso emanaldia. 22:30ean, Hator taldearekin dantzaldia, pilotalekuan. Etzi, domeka, nagusiei omenaldia egingo diete. Besteak beste, 11:00etan, meza izango da, eta 12:00etan, hamarretakoa, dantzariak... Arratsaldean, zinta lasterketa eta dantzaldia izango dira.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Umeei masajeak ematen ikasteko tailerra** antolatu du Sexologia Zerbitzuak uztailaren 16rako eta 23rako. 0-1 eta 1-3 urteko umeen gurasoei dago zuzenduta, adinaren arabera. Argibideetarako, deitu 943 79 80 10 telefono zenbakira.

► **Gazte bulegoak** honako ordutegia izango du uztailaren: 10:00-14:00 eta 17:00-20:00.



► IKUSKIZUNAK

'PAS DE BASQUE', EUSKAL DANTZEN GAINKO IKUSPEGI BERRIA

Pas de Basque dantza ikuskizuna eskainiko du Argia Dantza Taldeak bihar, zapatua, Aretxabaletan. Emanaldia kirol etxean izango da, 22:30ean. Juan Antonio Urbeltz dantzari eta ikertzaile iruindarrak zuzentzen du talde hori, eta bere muntaia guztietan, euskal folkloreak gaur eguneko ikuspegia eskaintzen dute, guztiz berria eta originala, hortaz. Horixe da baita *Pas de Basque* ikuskizunaren kasua ere. 40 dantzari eta hamar musikari parte hartzen dute emanaldian. Desafio Dantzak egiten dituzte lehenengo, inprobisazioari tarte handia emanaz. Gero, Patuaren Dantzak etorriko dira. Zinta Dantza da ekitaldi garrantzitsuenetako bat, eta bizitzaren arbola irudikatzen du. Azkenik, Aratuste dantzak eskainiko dituzte.

Non: Aretxabaletako kirol etxean. **Noiz:** bihar, uztailak 3, zapatua. **Ordua:** 22:30.

LANBIDE HEZIKETA

heziketa zikloak

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Matrikulazio epea:
Uztailaren 1etik 7ra

- Fundizioa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa
- Metal eraikuntzak

LANPOSTUA LORTZEKO AUKERA HANDIA

ESKAINNTZA PARTZIALA

Aurrematrikulazio epea: Uztailaren 1etik 23ra.
Izen-ematea: Iraila

- A) Erdi eta goi mailako heziketa zikloak:
 - Mekanizatua
 - Eraikuntza metalikoak
 - Fundizioa eta pulbimetalurgia bidezko Produkzioa
- B) Erdi eta goi mailako Heziketa zikloetarako sarbide-probak egiteko oinarriko heziketa



zure etorkizunerako biderik onena



Etxebarri auzoa z/g
Tel.: 943 79 79 00
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABALET
ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com

Karibera bi lagunendako bidaiaria zoragarria irabazi nahi?

Egin zaituz Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun uztailaren 16a baino lehenago (20 €), eta Karibera bi lagunendako bidaiaren zozketan parte hartu ahal izango duzu.

Ez galdu aukera. Harpidetu zaituz!

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

Urte amaierara arteko harpidetza: **20 €**

ASTELEHENKO
Goienkaria
astehenean, aste bukaera osoa

Laguntzaileak: **VIAJES IBERIA**

BASTER ALDE
jatetxea

Zozketaren gaineko
SAIO BEREZIA
GOIENA TELEBISTAN
uztailaren 20an, 20:30ean

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Mendizalaren galtzerdia		Salto		Larrua
	Asmoa		*Deitura		
	Jasangaitz				
	Alabaina				
Lekaiame, serora		Hondarra			
Tamara, zoritxarra		Talde, pila			
				50	
				Arre, gris	
*Izena					
Futbolearen, hutsa					
			Lehen bokala		Landare bati adarrak ebaki
			Itogin		
Berbetan, solasean	Ugaritasun atzizkia		Ibaietako pasabide		
	Atera		Ezeztatze partikula		
Modu atzizkia		Zaude			
Idi hitz-elkarketan		Hegazti mota			
		Bai zera!		Uranioa	
		2. musika nota		Herri hizk, eta	
Hauts					
Nirea					
			Telebista italiarra		

UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

BAI, ERMURUNTZ
Egun baten, jua da Balbotin ugazabangana. Auxe eskabide auxe eitzen zetsan: jorna altxatzeko. Ugazabak orduan:
- Baiña, ez hago konforme irabazten duanakin? ALFAtik urrengo geu gaitxuk barren!
- Balbotinek zoli-zoli:
- Bai, Ermuruntz.

MOTOTXENIAN
Kaporala ta bere laguna jua dira Mototxenera. Edan

dabez bi bermut eta jua dira kalera ordaindu barik. Mototxek, ikusitxa orduan be sartu zetsela zirixa, diño:
- Ez ba, gaur pagau biarko juek. Ordu bi eta erdieitan badatoz barriz bi lagunok eta eskatzen dabe bi txikito.
Mototxek:
- Lenengotik lengua pagau!
Kaporalak:
- Ara ba!, konfundidu ei aiz. Guk, oiñ, etxakau dirurik. Len bai!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola





Etxebizitzak ala autoak gehiago?

Orain 100 urte auto banakaren bat izango zen gure herrietan, 60ko hamarkada inguruan etxe bakoitzean auto bat; geroago hasi ginen esaten etxe bakoitzean bi eta hiru auto zeudela. Gaur zer gertatzen ote da? Etxebizitzak ala autoak ote dira gehiago? Ondorengoetan zein ote da egia?


- Etxebizitzak, 23.214; turismoak, 27.023
- Etxebizitzak, 20.214; turismoak, 33.023
- Etxebizitzak, 19.214; turismoak, 25.023
- Etxebizitzak, 23.214; turismoak, 21.023

handiagoa izango da eta alde, beraz, txikiagoa. Frantzu zuzena: Etxebizitzak, 23.214; turismoak, 27.023. Berez, datuak ez dira urte berekoak. Etxebizitzena 1996ko erroldakoa da eta autoena 2002koa. Gaur egun, ia seguru etxebizitza-kopurua zer bait

BILABILATZ



SOLUZIOAK



E	N	E	A	•	R	A	I
•	E	R	A	•	U	S	
I	T	A	•	X	•	U	
•	R	O	•	A	R	A	
H	Z	K	E	T	A	N	
•	•	•	•	•	•	•	•
F	A	L	T	A	•	•	•
•	•	•	•	•	•	•	•
D	O	M	A	I	A	L	•
•	•	•	•	•	•	•	•
M	H	A	R	E	A	•	•
•	•	•	•	•	•	•	•
G	O	G	O	A	•	•	•
•	•	•	•	•	•	•	•

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Arrakasta eta asebetetasuna esparru guztietan, batez ere lanean. Izan ere, jendea konbentzitzeko eta denetik fruitua ateratzeko gaitasun handia duzu. Bestalde, atzerrira bidaia egingo duzu, lan kontuengatik.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Segurtasunik eza handia bizi duzu, eta hori ez da batere ona proiektuak aurrera eramateko orduan. Izan konfiantza zeure buruarengan. Bestalde, gastu handia egingo duzula-eta, ingurukoekin diskusio bat baino gehiago izango dituzu.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Zure ekonomiak bultzadaxoa izango du, aurretik egindako inbertsio batzuk fruituak ematen hasi dira-eta. Bestalde, ohi baino aktiboago ibiliko zara, eta edozer egiteko beste energia izango duzu.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Ahalegin zaitze gaizki ulertzeko ekiditen eta gauzak argi uzten; osterantzean, lan-proiektu garrantzitsu bat bertan behera gera daiteke, eta ekonomiki astindu ederra jaso zenezake.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Zure sexu berekoengan inbidia piztuko duzu, kontrako sexuarengana erakarri egongo zara-eta. Bestalde, osasunari dagokionez, zuhurtzia aholkatzen dizut.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Diru-sarrera handiagoak izango dituzu, lanean hobekuntzak izango dira-eta. Bestalde, ez zaitze presaka ibili, orkatila-zaintiratuak eta estropezuak izateko joera izango duzu-eta.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Buruan baldin bazeneukan plazerrezko bidaiaren bat egitea, ahaztu ezazu, orain; izan ere, ardura gehiago izango dituzu esku artean, eta ez duzu izango denborarik bidaietarako.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Diru-sarrera handiagoak izango dituzu, lanean hobekuntzak izango dira-eta. Bestalde, energiagaitasuna egongo zara, eta energia hori guztia ondo zuzentzen baduzu, helburuak beteko dituzu.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Gauza askotan hartzen duzu parte, baina ez zara inoiz buru-belarri sartzen; edozelan ere, pertsona bat sartuko da zure bizitzan, eta jarrera hori birplanteatzen lagunduko dizu.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Ez egin aurka lanean gertatuko diren aldaketek, epe luze oso onuragarriak izango dira-eta. Bestalde, transformazioak amodio kontuetan.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Oso ondo dago ideia onak izatea, baina ez da nahiko; izan ere, horiek praktikara eramatea ere behar-beharrezkoa da. Aurrera egin. Ondo irtingo da. Bestalde, dirua edo agiri garrantzitsuren bat galduko duzu, oharkabean.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Gara ezazu zure alde tekniko eta praktikoena. Bestalde, urduriegi eta suminkorregi ibiliko zarenez, ingurukoekin eztabaida inozoren bat izango duzu.




AIPAGARRI

Mari Jose Gil

ARRASATE

Euskadiko atletismo txapelketan, bi urrezko domina irabazi ditu, beteroen mailan. Durangon jokatu zen txapelketa, joan den asteburuan. Urrezko dominak hainbat distantziatako lasterketetan irabazi ditu. Hain zuzen ere, 1.500 eta 5.000 metroetan irabazi zituen dominak arrasatearrak.



Aitor Mendizabal

ANTZUOLA

Debarroko pilota txapelketan, atzelari onenaren saria jaso du Aitor Mendizabal antzuolarrak. Joan den zapatuan Eskoriatzan jokatu zen txapelketa, eta, kadete mailan, Aitor Jauregirekin batera azken partidua ere irabazi egin zuen. Elgoibarko bikotearen aurka jokatu zuten finala.



Mikel Araiztegi

BERGARA

Eibarren, margolan lehiaketa egin zuten pasa den domekan, eta Mikel Araiztegi bergararrak irabazi zuen. Adin guztietako ia 50 lagunek hartu zuten parte lehiaketan. Guztiek Eibarko margolan bana egin zuten. Mikel Araiztegi 700 euroko saria irabazi zuen, eta baita trofeo berezia ere.



Eskela,
urteurren meza
edo eskertzarik jarri
nahi baduzu,
etor zaitez
GOIENKARIAren
ordezkaritzetako
batera.

Goienkaria

Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 80 €.



HILDAKOAK

Antonia Aguado Portalo. Arrasaten, ekainak 24. 86 urte.


Concesa Alvarez Castellanos. Arrasate, ekainak 25. 79 urte.

Claudio Heriz Ezkurra. Arrasaten, ekainak 26. 80 urte.


Maria Kortabarria Galdos. Oñatin, ekainak 26. 90 urte.

Jose Antonio Maiztegi Gantxegi. Bergara, ekainak 29. 73 urte.

Pedro Martin Zabaleta Zurutuza. Bergara, ekainak 30. 51 urte.



Igor Carrillo eskoriatzarra eta **Leire Diaz de Zerio** arrasatearra joan den ekainaren 19an ezkondu ziren Dorletako santutegian, Gatzagan. Orain, Australian daude, ezkon bidaian. Zorionak, bikote, etxeko guztien partetik!



Jon Urtzelai eta **Leire Arietaleanizbeaskoa** zapatuan ezkonduko dira, uztailaren 3an, Oñatiko udaletxean. Ondoren, Kenya eta Maurizio uharteetara joango dira eztei bidaian. Zorionak, eta oso zoriontsuak izan zaitezela opa dizue zuen familiak.



Carla eta **Eneko** zapatuan, uztailaren 3an, ezkonduko dira Loiolako basilikan. Bazkaria, Oñatiko Etxeaundi jatetxean egingo dute eta ezkon bidaian, Brasilerara doaz. Aretxabaletako koadrilako partetik, zoriontsuak izan!



Angiozargo **Lide Gomez** eta **Iñigo Pagaldai** zapatuan, uztailaren 3an, ezkonduko dira Angiozargo San Migel elizan. Zorionak, bioi, lagunuen partetik, zapatuan parranda ederra egingo dugun esperantzarekin!



Felix Igartza eta **Kontxi Arejolaleibar** bergararrak 25 urte beteko dituzte ezkunduta. Domekan, uztailaren 4an, ospatuko dituzte zilarrezko ezteiak familiakoekin batera. Zorionak, bioi, baserriko guztien partetik!

ARRASATE BIDAIK, S.L

Konfiantza osoko zure bidai agentzia:

- Enpresa bidaiak.
- Hegazkin txartelak: Nazionalak, nazioartekoak eta hegaldi bereziak.
- Tren eta itsasontzi txartelak.
- Antolatutako bidaiak eta zirkuituak.
- Turismo aktiboa eta baserri turismoa.
- Hondartzan edo mendian egonaldiak.
- Gizarte Turismoa (3. adina).
- Autoen alokairua.

INORK EZ DIZU GEHIAGO EMANGO



Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30
Faxa.: 943 79 74 45
E-posta: d4051@marsans.es



ZABALDU BERRIA

'Jaiak'

MARTIZENA/ 20:30

Eskoriatza, Elgeta eta Aramaioko jaietako girorik alaiena

Debagoieneko hainbat herri jai giroan murgildu dira. Eskoriatzan eta Elgetan astean eman diete amaiera herriko festa nagusiei. Aramaioarrek, berriz, oraingo asteburuan egingo dituzte euren festak. GOITB horietan guztietan izan da. Irudi eta elkarrizketa xelebreekin osaturiko saio berezia eskainiko dizue martitzenean. Jaiak zuzentzen Kepa Errasti ibili da. Laguntzaile lanetan, berriz, Mikel Aranburu, Oihan Vega, Ainhoa Alberdi, eta Imanol Gallego izan ditu.



'Berriak'

EGUNERO/ 20:00 / 21:30 / 23:00

Gaueko albistegietan, egunak eman duen informazio guztia

Uztailean sartu gara, eta Goiena Telebistak ohiko programazioa aldatu egingo du. Abuztuko oporrak hartu bitartean albistegi bakarra izango da, arratsaldeko zortzietakoa. Deiane Arrietak aurkeztuko ditu eguneko berririk aipagarrienak. Arratsaldeko zortzietan albistekak ikusi ez dituztenendako, berriz, errepikapenak egingo dira. Lehenengoa 21:30ean eta bigarrena 23:00etan. Emisio orduak ere aldatuta izango dute. Izan ere, 19:45ean hasi eta 23:30etan amaituko da emisioa.



TELEBERRIAK

Janet Jacksonen kasuarengatik isunak ipiniko dituzte

AEBetako CBS telebista katearen 20 telebista estazioi 550.000 dolarreko isunak ipin diezaiakete, Janet Jackson abeslariaren kantaldia dela-eta. Kontua da pasa den otsailean, futbol amerikarreko finalean, Super Bowl-ean, Janet Jacksonek titi bat erakutsi zuela kontzertuaren amaieran. Amerikarrendako egundoko lizunkeria izan zen hura. Bada, AEBetako Senaturaino iritsi da kasua, eta joan den astean, senatariek erabaki zuten halako kasuetan ezarri beharreko isunen zenbatekoa areagotu egin behar dela. Eta Super Bowl-aren kasuan, 500.000 dolarreko isuna ipintzea proposatu zuen Ordezkarier Ganberak. Orain, neurri hori onartu edo ez erabaki beharko dute.

Vocento taldeak 80 bat milioi euro irabazi ditu Telecincori esker

Telecinco burtsara irten izanak irabaziak ekarriko dizkio Vocento taldeari. Kontua da talde hori Telecincoren %25en jabe zela, eta iaz, zati horren %12 saldu zuela. Baina salmenta horretan hitzartu zutenaren arabera, Telecinco burtsara ateraz gero, bere akzioen kotizazioaren arabera, berraztertu egingo lukete 2003ko salmenta prezioa. Kontua da Telecincoren akzioak 10,15 euroan atera baziren ere, batez beste 12 euro pasatxoan saldu zituztela aurreneko jardunean. Horrek esan nahi du orain, Vocentok 77 eta 88 milioi euro arteko konpentsazioa izango duela.

Uztailean ohiko programazioa aldatuko du GOITBk, eta urtean zehar ekoiztutako hainbat saio eskainiko ditu

Astlehenean, 'Ternuko uretan' eta eguaztenean '1936, belaunaldi etena' erreportajeak eskainiko dira

GOIENKARIA

Goiena Telebistak uztaila eta iraila aprobetxatzen ditu urritik aurrera eskainiko dituen saio berriak prestatzeko.

Uztailean eta irailean zehar Goiena Telebistak arratsaldeko emisioari eutsiko dio. 20:00etatik aurrera informatiboak izango dira nagusi GOITBn. Gainera, urtean zehar ikusi ahal izan dituzten hainbat saio berriri ikusteko aukera izango dituzte. Astlehenean, esaterako, gaueko 22:00etan hasita *Ternuko uretan* erreportajea eskainiko dizuegu. Martitzenean, berriz, jaiak eskainitako saio dibertigarria izango duzue ikusgai. Oraingoan, gure erreportaririk xelebreenak Debagoieneko hiru herritako jaietan ibili dira jendea zirikatzen: Eskoriatzan, Elgetan eta Aramaion. Saio hori albistegia-



Saio berriak prestatzen hasiko da GOITBko lantaldea.

ren ostean, gaueko 20:30ean, ikusi ahal izango duzue. Eguaztenean, *1936, belaunaldi etena* izenburupean, Espainiako gerraren inguruan egindako erreporta-

jea eskainiko dizuegu, 20:30ean. Horrez gainera, 21:00etan hasita, San Juanetan Arrasaten Ruper Ordorikak eman zuen kontzertuaren eta *Malaje* ikus-

kizunaren zati batzuk eskainiko dizkizuegu. Eguenetan, aurtun *Iluntzean* saioaren txanda izan da Goiena Telebistan; dagoeneko makina bat aurpegi eza-gunekin izan da solasean Aintzane Gardoki. Beraz, eguenean zenbait saio berreskuratuko ditugu artxibotik; hala, aste honetan, Arzalluzi eginiko elkarrizketa ikusteko aukera izango duzue. Eta egubakoitz honetan bi erreportaje eskainiko ditugu: bata, Arrasaten San Juanak nola ospatzen zituzten kontatzen diguna, eta bestea, Gatzagako gatzaren eta Oñatiko txokolataren ingurukoa. Lehenengoa 20:30ean izango da eta bigarrena, 22:00etan.


Aste bukaerako emisioei dagokienez, astean emandako hainbat saio errepikatuko ditu Goiena Telebistak. Zapatuan eta domekan, 13:30ean izango duzue emisioaren hasiera.

KAMERAURREAN



"Oñatiko hiltegia ixtearen aurka ia 10.000 sinadura batu ditugu, beraz, erantzuna oso ona izan da. Gainera, sinadura horietako gehienak kontsumitzaileenak izan dira".

German Arbulu / Hiltegia Bizirik ekimena 'Berriak' (2004/06/29)



"Proiektua begi onez ikusten dugu. Etorkezinean fruituak emango dituela uste dut. Gure herriko jendea lan egiteko modu kooperatiboaz kontzientziatu behar dugu orain".

Mohamed Embbarek / (SEADeko ordezkarria) 'Berriak' (2004/06/30)

TELEBEGI/ Maria Agirre

Otegi eta Arzalluz

Politikari biek telebistan egindako agerraldiek eman dute hizpiderik. Lehena, Otegi, ETB 2ko *Vaya Semanita* saiko gonbidatu izan zen joan den eguenean. Azkenaldian baino lasaiago sumatu nuen. Independentzia lortuz gero, Euskal Herrian txortan gehiago, edo, behintzat, lasaiago egingo litzatekeela esan zuen, besteak beste. Bukaeran, Iturgaitz edo Arzalluz aukeratzeko eskatu, eta jesuitaren alde egin zuen inolako zalantzarik gabe.

Astlehenean, berriz, Arzalluzen txanda *Sorginen Laratza*-n. EAJren buru ohiak, lore galantak bota zizkion Otegi, oso tipo argia dela eta curriculum interesgarria duela esanez. Ondoriorik atera daiteke, bereziki Arzalluzek Otegi aitortutako miresmenetik? Azkenaldian entzuten da su-eten baten zurrumurrua, eta EAJk aitortu du Batasunarekin berba egiten ari dela. Beti esan ohi da sukaldeko lan handia eskatzen duela bakeak, eta sorginen laratza ere sukaldean izaten da.


ilusioaren
kolorea



elkartasunaren
kolorea



**ahale
gina**ren
kolorea



festaren
kolorea



TOUR-era joateko asmoa duten Debagoiendarrak
jantzi nahi ditugu.

Deitu 902 36 38 51

 **Euskaltel**


Goiena Telebista

Goienkaria
ASTELEHENEKO
astelehenean, aste bukaera osoa

Atzeskua

OIHANA ELORZA

Idoia Altuna/ Bidaia agentziako langilea

Nora doa aurten jendea oporretan? Aste Santua baino askoz zabalagoa da uda, eta bazter guztietara heltzen da jendea. Kostara, uharteetara, Europako zirkuituak egitera, Kanadara, Thailandiara...

Opor egunen arabera?

Bai. Bidaia handiak egin nahi dituztenak hiru bat asterako joaten dira.

Adinak finkatzen ditu opor lekuak?

Gazteek, adibidez, hegazkinaren txartela bakarrik erosten dute, eta euren kasa mugitzen dira gero, Hego Amerikan, Australian...

Europako zirkuituak egitea pentsatu dutenak ere gazteak eta edozein adinetako bikoteak dira. Haur txikien gurasoak direnak, aldiz, uharteetara edo Penintsulako kostaren batera doaz.

Zeintzuk dira eskaera handien izan dituzten herrialdeak?

Txekia eta Europako erdialdeari buruz askok galdetu dute; baita Holanda eta Herbehereei buruz ere. Urterokoak dira horiek.

Eta modan jarri den tokia?

Joan den urtean jende asko joan zen Kroaziara, eta

baita aurten ere. Iaz joan zirenak oso gustura bueltatu ziren.

Hala ere, aurten jende askok eskatu du herrialde baltikoen gaineko informazioa: Lituania, Estonia aldea. Poloniara ere saldu ditugu bidaia, eta hori ere berria da, lehen ez zen horrenbeste eskaera jasotzen Poloniarako.

Eta Europatik kanpora doazenak nora doaz?

Argentinara, Mexikora, AEBetara eta azken urteetan Kanadara ere bai.

Egipto, Tunisia eta Marokora ere urtero joaten da jendea, baina hortxe galditzen dira Afrikarako bidaia. Senegalera ere badoaz batzuk, baina gehienek nahiago dute Amerika Afrika baino.

Hasi dira hotelak eta hegaldiak betetzen?

Uharteetako hainbat toki beteta daude jadanik eta hegaldietan ere hasi dira arazoak izaten.

Noiz hasi da jendea tokia hartzen?

Bezero finkoak, urtero toki berera doazenak, Benidorm edo Saloura, adibidez, Aste Santuko oporrak baino lehen hasten dira. Gainontzean, Aste Santuko oporren ostean.

Asko gelditzen dira azken eskaintzen zain?

Gero eta gehiago. Ez zaie axola nora joan, eta heltzen diren eskaintzen artean aukeratzeko dute. Eskaintzak datozenean datoz, eta jendea sarri etortzen da galdezka. Abuztuko lehen hamabostaldian, adibidez, zoratzeko beste jende etortzen da.

Jasotzen dituzue bezeroen postalak?

Bakarren bat edo beste, baina oso gutxi. Bueltan datozenean, ordea, etortzen dira zer moduz ibili diren kontatzera.

Zuek noiz hartuko dituzue oporrak?

Guk ere oraintxe, uztail eta abuztuan, txandaka.



“Herrialde baltikoak eta Polonia dira aurtengo opor leku berriak; jende asko doa”

“Postal gutxi jasotzen ditugu, baina bueltan datozenean, gero eta gehiago etortzen dira zer moduz ibili diren kontatzera”

“Hotel batzuk beteta daude dagoeneko eta hegaldietan ere hasi dira arazoak”

► Soraluze / 28 urte / Eroski Bidaietan egiten du lan

PIPERRAUTSA

Teruel

Azkenean argitu dira zalantzak. Abiadura Handiko Trenak ez gaitu lotuko ez Madrilera, ez Europarekin. Lotuko gaitu nagusiki Teruelekin, nahiz eta azken geltokia Valencia izango den.

Gobernu sozialistak adierazi du, Patxi lehendakari zirkatuta, gure tren grekoa luzatuko dela Gasteiztik Logroñora, gero Zaragozara eta handik Valenciara, Teruel ondotik igarota. Eta nik sekulako deskantsua hartu dut. Kezkatuta nengibilen frantsesek esan zutenetik tren azkarrerako hobesten zituzte la Italiako eta Kataluniako loturak. Hau da, ez zutela ekarriko tégévèrik Hendaia-ra. Loa galduta nengibilen entzun nuenean Europak ez duela presazko proiektuen artean gure tren txapligua, eta seguru asko ez dela handik dirurik etorriko. Harrituta nindukaten agintari gorenaren iragarpenak esanaz tren tximistak hustuko zituela kamioiez gure errepideak. Nola demontre, ez badago ibilbidean geltokirik, eta 250 km/h-ko abiadan? Urduri, pentsatzen hasia nengoen trena egiteko tematuta zeudela agintariak, eta kosta ahala kosta egin nahi zutela, helburuak ilun samar eduki arren. Proposatzeke ere banengoen apaltasunez ea ez ote zen komeni hausnarketa egitea gaiari buruz, oraindik garaiz gaudenez.

Baina orain argi daukat. Akabo zalantzak. Has dadila txikizioa, aurten bertan bada hobe. Txistu biziko trenari esker, eskura izango zaitut, Teruel mon amour...

MIKEL IRIZAR

Tarifa pertsonalizatuak

Zatoz gure bulegoetara eta informa zaitez

- Aseguruak
- Finantzaketa
- Renting
- Balio erantsien lantegiak



Mapfre
Errekabarren 3
943 77 11 76
ARETXABALETA

Mapfre
Garibai etorbidea 16
ARRASATE
943 79 89 00
Arrasate pasealekua 37
ARRASATE
943 79 71 31

Mapfre
Simon Arrieta 3
943 76 18 80
BERGARA

Altube zerbitzuak-Mapfre
Portu 5
943 78 12 65
ONATI